

ELKARRIZKETA: MANOLO QUEVEDO, ERRETIRATUA

ARKO

Arrasate

P R E S S

1999ko
Martxoak 12
443. zenb.



Hezibideren erronkak milurtekoari begira

IKUSPEGIA: J. M. VELEZ DE MENDIZABAL • ZALDIBARKO TXAPELKETA: ZOZKETA
EUREN IKUSPUNTUTIK: ALBERTO ENCINAS • KULTURA: TAUN-TAUN TALDEA

haurrentzako txotxongilo emanaldia

taun-taun taldearen

txio txioka

Eguna:
martxoak, 14

Lekua:
Amaia Antzokia

Ordua:
17:00etan

Sarrera:
300 pta.



ARRASATEKO UDALA

Kultura Saila ■

AG AMAGARA

Erdiko Kale, 54 etxabea • ARRASATE
Tel: 943 79 09 09



MARTXOKO ESKAINTZA BEREZIA

- **Solariumeko 6 saio, 6.000 pta.**
Saio bat opari
- **Gorputz tratamenduko 8 saio**
Bi saio opari
- **Mailakako depilazioa, 3 saio**
Depilazio ondorengo krema opari

**Gure helburua
edertasuna da,
garrantzitsuena
zeu zarelako**

David Copperfield-en beharrea

Dirudienez, Fernando Buesa jaun txit gorenak demokristau komentzi-tua genueneko garaietara itzuli nahi izan du arestian irrist egin duenean, espainiar izaeraren aintza aldarrikatuz. Matxinadarako deia egin die euskal nazionalista ez diren guztiei, espainiar nazionalismo itsu eta azpiratzaile den sentimendutik. Espainiar komunikabideak albistearen ezagutarazpen hutsera mugatu dira, iritzizko baloraziorik egin gabe.

Daewoo enpresari eskaintako diru laguntzak direla eta, egundoko ostikada eman diote Arabako Foru Aldundiari (eta ondorioz euskal ogasun sistemari) Bruselatik, txilindroi orozanpatzaile interesatuak euskal ogasun nolakotasunen errealitatea baztertuz eta jipoituz. Espainiar komunikabideek albistea eman dute, euskaldunoi dagozkigun legezko espezifitatei buruzko iritzizko baloraziorik egin gabe.

TSJPV delako



J. M. Velez de Mendizabal

erakunde ukiezinak hankaz gora jarri du Gipuzkoako Diputazioak araturiko zerga sistema. Bitxikeria bada ere, diodan 1998an epaitegi horrek antzerako arau bat onartu zuela, orduan Bizkaiko Diputazioari zegokiona. Espainiar komunikabideak, euren ixiltasunean, adostasuna adierazi dute erabaki ulertezin horretarako. Hori

bai, *Correo Españolek* editorial bat argitaratu du, "Ez da ahaztu behar, europar esparruko armonizazioaren prozesua eta hitzarmenduriko erregimenaren defentsarako espainiar konstituziotik eskaintzen den laguntza". Irakurri behar dena, itsu ez izateagatik!

Bien bitartean, eraso jarraia espainiar komunikabide guztietatik —bat ere salbuespenik gabe!— euskal arazoari irtenbide emateko gure gizartetik sortzen ari diren ahaleginen kontra. Eta horren ondorioz, es-

painiar gizarte zabalean gero eta sentimendu bihurriagoa gorpuzten ari da gurekiko. Mediatikako gatazka galduta daukagu euskaldunok aspalditik, eta horren emaitza azken hilabeteotan askoz garbiago antzeman daiteke.

Lehenagoan nire adiskide batek formula bat eskaini zidan, hain zuzen ere Ibarretxe lehendakariari aurkezteko. "Zergatik ez diogu David Copperfield magoaren kontratazioa aholkatzen?" esan zuen. Nire txundipenaz jabetuta, arrazoitzen segitu zuen: "Ez du, bada, Copperfieldek Askatasunaren Estatu desagerarazi ahal izan? Bada, eska diezaiola Ibarretxek Euskal Herria hiru bat hilabetez edo, kanpokoen bistatik ezabatzea, eta ia medio zitelen eraginik ezean gai ote garen bake santuan gure arazoez eztabaidatzeko".

Ez zela ideia txarra gehitu nion eta gainera, zorte on apur batez, komunikabideak gutaz ahaztuta euren barne egokitzapena egin beharko lukete, irabaziak beste nonbaitetik erdietsi ahal izateko. "Horrek luzapena eskatuko luke, gutxienez sei hilabetera", erantzun zidan. Baina, pentsatu nuen, mereziko luke! ■

Mediatikako gatazka galduta daukagu euskaldunok aspalditik

"Zergatik ez da kooperatibismoa Arrasatetik kanpo zabaldu? Agian gure idiosinkrasiarekin izan lezake zerikusia"

Manolo Quevedo

300.000

pta emango dizkio
Arrasateko Udalak
Euskararen Kontseiluari

Udaletxeko 84 langilek, udal langileen erdia, euskarari lanordu bat ematea erabaki zuten. Horrela, 175.000 pta bildu ziren. Udalak berak, beste horrenbeste ematea erabaki du. Kooperatibetan eta inguruko enpresa txikietan ere diru dextente jaso da.

ITURRI ONETIK

Fagorren nortasun arazoak

Fagor Automatiok aspalditik du bere jarduera kanpora begira antolatua. Makina erremintaren eremurako egiten du lan, makinaren automatizaziorako eta kontrole-rako produktuak eginez. Bere produkzioaren gehiena esportatu egiten du (Ikus 22. or.).

Horrek berak arazoak sortu zizkion Aurki izena zue-nean. Hamar urte aritu zen izen horrekin eta 90ean Fagor Automation izena hartu zuen, esportagarriagoa zelakoan.

Kanpora begira konpondu zuen arazoa, baina barrura begira ez, antza. Arrasaten bertan, jende gutxi daki non dagoen Fagor Automation eta zer egiten duen. Fagor izena jarduera asko biltzen dituen txapela handi bat da, baina jende gehienak etxeko tresna elektrikoekin identifikatzen du izen hori.



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@readysoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzailea: Arrasateko Udalak. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Administrazioa:** Agurtzane Gaiztegorri (Tel.: 943 71 23 90). **Diseinua:** Txos Azurmendi. **Asteburuetako berriemaileak:** Gontzal Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Sailla, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 71 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Ger-tu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maider Osa.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 12**
• Gauze eta egunez: Zabala, Zarugalde
- Larunbata, 13**
• Gauze eta egunez: Ruiz, Maala
- Igandea, 14**
• Gauze eta egunez: Morales, San Andres
- Astelehena, 15**
• Gauze eta egunez: Azkoaga, Ferrerías
- Asteartea, 16**
• Gauze eta egunez: Español, Iturriotz
- Asteazkena, 17**
• Gauze eta egunez: Korquera, Musakola
- Osteguna, 18**
• Gauze eta egunez: Irizar, Erguin

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igalatorioa 943 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**
Bergara 943 76 55 76
- DYA**
Antzuola 943 78 71 57
- Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdiak) .. 943 03 53 00
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• ikuskatzailea 943 03 53 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
• Fax zenbakia: 943 03 05 14
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**
Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**
Onati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 088
- Ertzaintza**
Arrasate 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088
- Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) .. 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78
- Garraioak**
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**
Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Monterron liburutegia**
Monterron 943 77 01 05
- Irratia**
Arrasate Irratia 943 79 58 77

ETA GUK, HERRITARROK, ZER EGIN DEZAKEGU?

Horrela, denbora asko ez duela, Iraken gorabeherak zirela eta, galdetzen zion neska batek bere buruari orriotan. Hausnarketa eragiteko zelakoan, berak utzitako lekukoa hartu nahiko nuke, alde batetik horretan sakontzeko eta harantzago joateko, ea beste norbaitek geroago ere beste horrenbeste egiten duen.

Egia esateko, gutariko nor ez du, noizbait, gauza bera pentsatu? Askok, ziur naiz. Behin lagun batekin gauza hauetaz hitz egiten nabilela, bere burua oso "txikia" sentitzen zuela esaten zuen munduko arazo itzelen aurrean zerbait aldatu ahal izateko. Gutariko askok arrazoi izan lezakete aski arazo dugula eguneroko bizimoduarekin esaterakoan. Baliteke.

"Herriska orokor" deitutako honetan, gizartearen multzo paranoiko baten (beste izen egokiagorik balego, bakoitzak jar dezala) azkenengo gertaerak ez ote duten mugarik izango pentsarazten didate, halabeharrez. Kurduen auzia, esaterako, pil-pilean egon da. Egunak pasatu ahal nola edo hala ahazten doazkigun kontuak dira. Bitartean Turkiar Estatuak eta Serbiarrak, besteak beste, torturak (Okalan buruzagi bera barne) eta sarraskiak jasanaraziko dizkiote jende askori. Bat ere zigorrik gabe eta askoren konplizitatearekin. Badirudi diruak edo "lanpostuen" (ja!) aitzakiak dena justifikatzen duela (larderia halakoa!).

Beraz, bidegabekeria hauen aurka altxatu nahi dut. Zeresan Europako gobernuen zein erakundeen jarrerari buruz? Itxurakeria hutsa! Buruan dudak lehenengo galdetara zera da: egoera hauek onargarriak dira? Duintasunari eutsi nahi diogu? Nik, behinik behin, duintasunari eusteko premia eta beharra dut. Izan ere, duintasuna galduz gero zer geratzen zaigun gizakioi? Oso gutxi edo ezertxo ere ez. Nire iritziz, duintasuna eta elkartasuna txanpon bereko bi aldeak edo enbor bereko bi adarrak besterik ez dira, prezeski. Eta maiz irakurri izan dut ezen askatasuna erabatekoa dela edo askatasunik ez dagoela.

Horregatik, ona izango zaigu "orokortasunean pentsatu eta tokiz toki lanari ekin" kontuan izanda ezina ekin egiten dela.

Eutsi goiari, bada!
Jabier Rodriguez Macho.
Gasteizen.

ESKER MILA

Lerro hauen bitartez esker eman nahi dizkizuegu lagundu duzuen guztioi. Zuei esker izan da posible hau guztia.

Jabik burmuinean min larria izan zuenean eta trata-

mendua hain garestia zela ohartu ginenean, haren lagun talde bat lanean hasi ginen, gure kidearen osasun asistentziak eragiten zituen gastuei aurre egiteko asmoz.

Datu adierazgarri gisa: eguneko kostoa 30.000 pta.koa zen eta Osakidetza ez zuen bere gain hartzen.

Familia eta herriaren elkartasuna ezinbestekoak izan dira orain arte. Denetik izan dugu: errifak, kultura ekitaldiak eta bestelako ekarpenak. Hau guztia talde desberdinen doako eskuhartzeari esker izan da posible, bai enpresei esker, bai kultura erakundeei esker eta baita Arrasateko eta inguruko herriei esker ere.

Jabi Mayorrek sei hilabete egin ditu dagoeneko Aita Menni Ospitalean ingresatuta. Segitu egin behar du, denbora luzean oraindik, tratamenduarekin. Izan duen bilakaera oso baikorra izan da, baina tratamendu hauek luzeak dira, garestiak eta geldoak. Denok gaude itxaropentsu egunen batean bere onera itzuliko dela.

Herritarren erantzuna erabatekoa izan da, benetan txalotzekoa. Berriz ere, har ezazue gure eskerronik handiena.

Agur bero bat.
Jabiren Lagunak taldea

Arkok telefono berriak

- Arrasate Press 943 71 25 11
- ATB 943 71 23 93
- Administrazioa 943 71 23 90
- Publizitatea 943 71 23 91
- Faxe: 943 71 23 89

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Jango zenuke jaki transgenikorik?

Kimika erabiliz egiten dira eta diotenez, bitamina ugari dauzkate.



Amaia Ureta
19 urte
Ikaslea

Ondo jakin arte, nahiago dut ezer ez jaten.




Jon Gonzalez
22 urte
Langabea

Nahiz eta ados ez egon, jan egiten ditut. Askotan jakin barik, horrelako asko dago kalean eta.



Unai Diez
25 urte
Ikaslea

Momentuz ez, baina luzarora ikusi egin behar. Lehen ez nuke esango poteetako jakirik jango nuenik, baina ...



Antonio Egiluz
62 urte
Erretiratua

Hobekuntza ekartzen badute, nik jango nituzke.



Rafael Carmona
62 urte
Erretiratua

Niri janari naturalak gustatzen zaizkit. Beti jan izan ditudanak bezalakoxeak.




Juani Ortiz de Zarate
57 urte
Langilea

Niri gehiago gustatzen zaizkit jaki naturalak. Ni lehen-goia naiz eta ...



Begoña Lejardi
38 urte
Irakaslea


Printzipioz kaltegarriak izan daitezkeela pentsatzen dugu, baina urte batzuetara ohituta egongo gara eta normalizat hartuko ditugu.




Nuria Gomez
18 urte
Ikaslea

Ez nituzke jango. Ez naiz fidatzen.

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 943 79 87 62



Pavimentos AGR

ARROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:

Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20



Txitxinpe

Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarateko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

Arrasate

LANAK

SANTA TERESAN

Santa Teresako 18, 20 eta 22 zenbakietan eta Doneztebe Portuko kalean saneamendu lanak egiten ari dira.

OTALORAN

Pilotalekua egiteko lanak.

KONTZEZINON


Etxeak egiteko lanak.

FERRERIASEN

24 eta 26 zenbakietan etxeak konpontzeko lanak.

AGERRE PLAZAN

Plaza berria egiteko lanak hasi dira.



Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro

Eguraldiaren aurreikuspena



OSTIRALA 12



LARUNBATA 13



IGANDEA 14

Aroak ildo beretik segituko du, beraz lainoak eta ostarteak tartekatuko dira, hego-ekialdeko haizea lagun izango dugularik.

Frente hotza gertuago izango dugu eta euria egingo du, batez ere iluntze aldera. Tenperatura, antzera.

Temperatura jaitsi egingo da eta euri arriskua aragotuko da. Beraz, lainoak nagusi zerruan.

Ilargia



Ilberria

Martxoaren 17an, asteazkena, ilberria izango da. Egun ego-kia proiektu berriei ekiteko.

Mezak

Parrokia

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (erdaraz)

19:00 (elebiduna)

Uribarri

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

San Andres

Ostiralean

18:30 (Otoitz ordua)

Larunbatean

18:30 (Bezpera abestiak)

19:00 (elebiduna)

Igandean

10:00 (erdaraz)

11:00 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Santa Teresa

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean


10:30 (erdaraz)

11:30 eta San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila

%99,9



Urteurrena

- Euskadiko Kutxak 16.340 milioi irabazi zituen, 1997an.
- Ezker Sindikalak bulegoa ireki zuen.
- Josu Arkauz epaitu zuten martxoaren 5ean, Madrilgo Auzitegi Nazionalan.
- Alarma piztu zen kooperatibetan aurrejubila-zioen kontura.

USTEAK USTE

Infoville hemen

Villena Valentzian dago. 1996an, orain hiru urte, Valentziako Generalitat-ek Infoville (Info informazioa, ville Villena) izeneko egitasmoa sortu zuen, Valentzia etorkizunerako prestatzeko. Europako Batzordearen laguntzarekin, Generalitateak ordenagailu multimedia bana jarri zuen Villenako etxeetan eta programa bereziak sortu zituen (InfoCole irakaskuntzarako, InfoCampus unibertsitatean, InfoSenior hirugarren adinekoentzat, etab.), herritarrek erabil ditzaten beren probetxurako.

Enpresa pribatuak ere parte hartzen ari dira Infoville egitasmoan: IBM, Oracle, Telefonica, Netscape eta Sun Microsystems, besteak beste. Infoville aitzindari da munduan, eredugarri bihurtu da eta dagoeneko zabaltzen ari da Valentziako beste hainbat herritara.

Gure alkateak, enpresarioek eta gizarte eragileek osteratxo bat egin beharko lukete hara eta ikusi hemen zer egin litekeen, Burdin Aroan gera ez gaitezen.

Joxe Aranzabal



Gu guztiok lotsarazteko

* Alberto Encinas

Irailaren 29an, Bergarako epaitegiak ustezko prebarkazio delituagatik Jose Maria Loiti Arrasateko alkatearen kontrako auzia bere horretan uztea erabaki zuen.

Bagenekien auzitegien bidea ez zela erraza izango, indarrean dagoen legediak kargu publikoak babesten baititu. Baina bide honek erabat geldiarazi du hamar biktima dituen gai hau, hauetatik sei adin txikikoak direlarik. Hau guztiagatik uste dugu pozteko arrazoi gutxi eta lotsatzeko asko dagoela. Nagusikeria, baztertuta dauden pertsonenganako mesprezia, berauen oinarrizko eskubideekiko mesprezia eta gizagabetasun plusa, oraingoz garaile atera dira, gu guztiok lotsaraziz.

Aurreko azaroaren 20an idatziz eskatu zitzaion udalari ura eta argi hartunea ezartzea, arazoari konponbide bat aurkitu bitartean behin behineko neurri moduan, SOS Arrazakeria eta Caritas alokatzeko etxebizitza baten bila gen-

biltzan bitartean. Hainbat aste erantzungi jaso barik itxaron ostean, behin behineko argi hartune bat egin zen alboko kale argi batetik. Biharamunean, moztu egin zitzaizen argia. Berriz hartunea egin eta berriro moztu, oraingo honetan kale argiaren atexoa soldatuz. Berriz hartunea egin eta udalak salaketa ezarri zien. Bien bitartean, erdiguneko kaleak Gabonetako argiz beteta zeuden, herriko plazan koloretako bonbilak zituen arbola zegoen eta udaletxeko balkoian errotulu argitsu bat, urte berri ona opatuz. Bai zurikeria!

Arartekoak abenduaren 28an igorritako idatzian zera dio: "bidezko dela bertako guztiak eroldatzeko obligazioa behin eta berriz errepikatzea, honek ez duela zeri-

“
Bi familia hauek
Arrasate utzi eta
beste toki batera joateko
aukerak aztertzen hasi dira
”

kusirik udalerrian bizitzeko udal baimenarekin.” Honela segitzen du: “kexu hau itxi eta artxibatu egingo duela, baina ez udal honek familia hauekiko izan duen jokabide arbitrario eta errespetu gutxikoa salatu gabe. Eta Arartekoak Eusko Legebiltzarrean urtero aurkezten duen txostenean sartuko dutela honen berri.”

Momentu honetan egoera ezin larriagoa da. Hain egoera eskasean hainbeste denbora egon ondoren, bi familia hauek Arrasate utzi eta beste toki batera joateko aukerak aztertzen ari dira. Eta nahiz eta hau alkateak garaipen bezala ikusi, gure ustez hausnarketarako gaia da, ez baikara arazo honi errespetuz heltzeko gai izan.

Udalaren gobernu talde honek bizkarra eman die bere ardura eta betebeharreri, eta arazo hau konpondu nahi izan du familia hauen eskubideekiko errespetua eskatu duen jendearen “karitatearekin”. Eta hau guztiz onartezina da, alkateari inork ez baitio eskatu familia hauek bere etxera eramateko, kasu hauetarako herri erakundeek badituzte eta, beren aktuzio planak.

Bukatzeko, kontu zenbaki bat eman nahi dizuegu bi familia hauei laguntzeko, pertsonak moduan dituzten Oinarrizko Eskubideak errespetatuko zaizkien beste toki batera joateko aukera izan dezaten: Kutxa: 2101-0055.62.0122579261.

* SOS Arrazakeria-ko kidea

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

GORKA
ILEPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

beatriz
oinetakoak
eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE

12 ostirala

■ ZINEA

Más fuerte que su destino, Alai zineman, 19:00etan eta 22:00etan.

13 larunbata

■ ZINEA

El milagro de P. Tinto, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ MENDI IRTEERA

Besaidek Bearnera antolatutako irteerako taldea Garibai kaletik aterako da, goizeko 05:00etan.

■ SAGITA LEHIAKETA

Al Andalus elkarteak IV Sagita lehiaketa antolatu du. 12:30etan, Montillako Udala-ekin eta Montilla-Moriles jatorri izeneko Kontseilu Arautzaillearekin batera, Euskal Herriko ardo finen I Dastaketa egingo da. 20:00etan, Euskal Herriko IV Sagita lehiaketa jokatu da, elkartean bertan.

■ ANTZERKI SAIOA

Panta Rhei antzerki taldeak "Zabor horia, zer da hori?" antzerki saioa eskainiko du, Udalako Ingurugiro Eskolak eta Deba Garaiko Mankomunitateak antolatuta. Bi saio eskainiko dituzte, Musakolan 13:00etan eta herriko plazan, 19:00etan.

■ JAIA JAM ARETOAN

Bergarako Jam aretoan Claude Young, Kreator, Theo eta Pablo y Orlando DJak arituko dira gaueko 23:00etatik aurrera.

14 igandea

■ ZINEA

El milagro de P. Tinto, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ TXOTXONGILO EMANALDIA

Taun Taun taldeak "Txio-Txioka" lana eskainiko du, Amaia antzokian, arratsaldeko 17:00etan. Sarrera 300 pta kostako da.

■ EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA

VIII jaia ospatuko du Euskal Eskola publikoak Gas-teizko Mendizorrotzan. "Euskal Eskola publikoa denon erantzuna" izango da aurten-go leloa. Ekitaldi ugari egingo dira: Maixa eta Ixiar, Arwak eta Betagarri gazteentzat; kirol eta kultura erakusketa, bertso jaialdia eta antzerkia. Pailazoak ere izango dira, goizean goizetik hasita.

15 astelehena

■ ZINEA

El milagro de P. Tinto, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

■ ANTZERKI SAIOA

Panta Rhei antzerki taldeak "Zabor horia, zer da hori?" antzerki saioa eskainiko du, Udalako Ingurugiro Eskolak eta Deba Garaiko Mankomunitateak antolatuta. Saioa San Andreseko Kurtzetxiki plazan izango da, 18:30etan.

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 943 79 13 78

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70

16

asteartea

18

osteguna

■ ZINEA

El milagro de P. Tinto, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

■ ANTZERKI SAIOA

Panta Rhei antzerki taldeak "Zabor horia, zer da hori?" antzerki saioa eskainiko du, Udalako Ingurugiro Eskolak eta Deba Garaiko Mankomunitateak antolatuta. Saioa Musakolako DBH ikas-tetxean izango da, 12:00etan.

■ LIBURU AURKEZPENA

"Arrasateko euskara" eta Arrasateko Mapa Toponimikoa aurkeztuko dira, arratsaldeko 19:00etan, Monte-rongo hitzaldi aretoan.

■ ZINEA

El abuelo, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 22:00etan.

■ ZINEA AMAIAN

Abril filma eskainiko dute Amaia antzokian, iluntzeko 21:30etatik aurrera. Sarrera 450 pta. kostako da (gazte txartelarekin, 400).

■ KONTZERTUA ARETXABALETAN

Aretxabaletako Izkutu tabernan, Leihotikan taldeak kontzertua eskainiko du gaueko 22:30etatik aurrera. Kontzertua Korrika Kulturalaren harira antolatu du Aretxabaletako AEK euskaltegiak.

■ MENDI IRTEERA

Besaidek mendi irteera antolatu du Palentziako Alto Carrionera, martxoaren 19tik 21era. Izen ematea martxoaren 15, 16 eta 17an izango da Besaideren egoitzan, arratsaldeko 19:30etatik 20:30etara.

■ YOGA LANTEGIA

Arrasate Yoga elkar-teak antolatuta, psikea eta gorputza uztartzen ikasteko lantegia egingo da martxoaren 20an, goizeko 10:00etatik 14:00etara, eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. Hatha-Yogaren bidez gorputza, burua eta emozioak landuko dira. Interesatuak 943 79 88 53 edo 608 57 50 29ra dei dezakezue.

■ SEXUALITATE LANTEGIA

"Emakumeak eta gizonak: nolako desioak nolako kontraesanak" izeneko sexualitate lantegia antolatu dute Udaleko Gazteria eta Emakume sailek. Agurtzane Ormaza eta Garbiñe Merinok zuzenduta, saioak apirilaren 20tik 27ra eta maiatzaren 4tik 11ra bitartean izango dira. Izen

ematea martxoaren 31n amaituko da, Gazte Bulegoan edo Emakume Sailean.

■ ADIERAZPEN ETA KOMUNIKAZIO IKASTAROA


Udaleko Emakume Sailak "Adierazpen eta komunikazio ikastaroa" antolatu du martxoaren 16tik ekainera bitartean. Izen ematea martxoaren 12an amaituko da. Berri gehiago 943 790 900 zenbakian.

■ KILOMETROAK 99

Dagoeneko salgai dago Kilometroak 99ko materiala. Arrasaten Naroki liburutegian eta Hiper-Eroskin dago salgai; Eskoriatzan, berriz, Dorleta liburutegian.

■ ARGAZKIGINTZA IKASTAROA

Gazte Sailak argazkigintza ikastaroa antolatu du apirilaren 17tik ekainaren 5era bitartean. Saioak larunbatero, goizeko 10:30etatik 13:30etara izango dira. Matrikula 5.000 pta. kostako da. Ikasle eta langabetuentzat, berriz, 3.000 pta.



Euskal Herriko ardo finen I Dastaketa Al Andalus-en

Larunbatean eguerdiko 12:30etan egingo da Al Andalus elkarte-an Montilla eta Morileseko ardo finen dastaketa.

BASOGINTZA IKASTAROA

Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuak, Lanerako Prestakuntza programen artean, basogintzari buruzko ikastaro bat antolatu du, INEMen dirulaguntzarekin.

Nori zuzendua: Arrasateko eta eskualdeko langabeei

Iraupena: 400 ordu

Egunak: apirilaren 12tik uztailaren 26a arte

Izena emateko epea: martxoaren 26a arte

Berri gehiago eta izena emateko:

Arrasateko Enplegu Zerbitzuan. Tel.: 943 79 09 00.



ARRASATEKO UDALA

Enplegu Zerbitzua ■

ARETXABALETAKO

Udal baimenik ez

1 Elgeako parke eolikoa egiteko lan baimena eskatu die Eolicas Euskadi enpresak Aretxabaleta, Eskoriatza eta Oñatiko udalei. Hirurek ezezko erantzuna eman diote.


Aretxabaletako Udaletik adierazitakoaren arabera, baimena eman baino lehen beharrezkoa da zenbait arazo tekniko argitzea.

Eskoriatzaren kasuan, bestalde, enpresak aurkeztutako planimetria nahiko eskasa da. Ez dago eskala errealean eginda eta honetaz gain, ez dute muga behar bezala errespertatu.

OÑATI

Aitzkorriko parke naturala

2 Aitzkorriko mendilerroa Parke Natural izendatuko du aurrean Eusko Jaurlaritzak, lau urteko atzerapenarekin. Hemendik aurrera, beraz, Aitzkorriko parke naturala Gipuzkoako handiena izango da, 20.000 hektarea izango baititu, hain zuzen ere. Ortzaurteko mendatean hasi eta Arlabango mendateraino joango



da. Gipuzkoako Eskoriatza, Aretxabaleta, Leintz-Gatzaga, Oñati, Legazpi, Zerain eta Zegama herrietako lurak hartzen ditu eta baita Arabako Asparren eta San Millan ere.

Animalia eta landare mota ugari biltzen dira Aitzkorriko.

ANTZUOLA

Zaborra aztergai

3 "Zaborraren problematika aztertzen" kanpainaren barruan, joan den larunbaterako aurreikusita zegoen antzerki saioa igandean antez-

tuko da. Panta Rhei gasteiztarren eskutik, "Zabor horia, zer da hori" izeneko antzez-lana izango da herriko plazan. Eurria eginez gero, berriz, pilotalekura aldatuko da.

Udalako Ingurugiro Eskolaren eta Deba Garaiko Mankomunitatearen artean antolatutako ekimena da hauxe. Laster gure herrietan ikusi ahal izango dugun edukiontzi berri horia aurkezteaz gain, ohartarazi nahi dute jendea zaborrak sortaraz ditzakeen arazoez.

BERGARA

Herria iruditan

4 Ostiralean "Bergara Iru-ditan: azken 40 urteetako aldaketak" izeneko erakusketa ireki zen udaletxeko osoko bilkura aretoan. Udal Agiritegiko 80 argazkiz osatutako erakusketa honek, Bergaran azken berrogei urteetan izandako aldaketak erakusten ditu. Artxiboko arduraduna den Arantzazu Oregi ibili da lan hau borobiltzen. Guztira 14 panel daude. Erakusketa martxoaren 21a arte egongo da zabalik. Jende asko hurbildu da erakusketa hau ikustera.



ARKO

Lan eskaintza

ARKO • Arrasate Komunikabideak

Publizitateko teknikaria

Baldintzak:

- Euskara ondo menperatzea.
- Harremanetarako erraztasuna izatea.
- Gidatzeko agiriaren jabe izatea.

Curriculumak martxoaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dira, ARKOren egoitzan

Otalora Lizentziatua, 31 • ARRASATE
Tel: 943 71 23 90 • Faxe: 943 71 23 89

Baloratuko da:

- Publizitate, Marketing edo Enpresa Zientzietan ikasketak izatea.
- Herri Komunikabideak ezagutzea.
- Merkataritza agente bezala esperientzia izatea.
- Arrasate ezagutzea.
- Testu prozesatzaileak eta datu baseak erabiltzea.
- Autoa edukitzea.

Bolsa
Garantizado
IX Fondoa



**Inberti ezazu Bolsa Garantizado Fondo berrian
eta egizu lo lasai.**

Bolsa Garantizado IX Fondoa

Erreforma berriari egokituriko Inbertsio Aurrezkiaren sistema honek nazioarteko Burtsa handietan inbertitzeko aukera eskaintzen dizu, zure kapitaleko pezeta bakarra arriskatu gabe.

Burtsak igo egiten badu, lau burtsa ospetsuren indizeen batezbesteko balio handitzearen portzentaia bat emango dizu. Eta jaitsi egiten bada, mugaeguneratzean zure kapitalaren %100 jasoko duzu.

9. jaulkipena


Ezaugarriak:

Mugaegunerako bermea: New York, Tokio eta Europako burtsen indizeen batezbesteko balio handitzearen %45.

Bermearen mugaeguna: 2003-1-31

Fiskalitatea: Sortzen diren errendimenduak ondare irabazitzat hartzen dira.

Harpidetzeko epealdia: 1999-3-31ko 14:00ak arte


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun
zuzena

Kanpaldia bukatu da, arazoa ez

Bi asteren ostean, Pedro Mertzan "Papi"ren kanpaldia gaur amaituko da iluntzeko zazpietan egingo den kale agerraldi baten bitartez. Izan ere, martxoaren bukaera alderako aurreikusita zegoen epaiketa apirilaren 13a arte atzeratu da.

Dena den, hemendik ordua arte Pedro Mertzanen aldeko ekitaldiek bere horretan iraungo dute.

Gelmako enpresa batzordeari eta hantxe dauden sindikatuari, adibidez, elkartasuna adierazteko geldialdiak egiten segitzeko proposatu zaie eta orain, erantzunaren zain daude. Gogora dezagun Pedro Mertzanen kaleratzearen ostean, ESK, LAB, CCOO, EILAS eta LANKIDEAK sindikatuak lan taldea osatu dutela *Papiren* egoera salatzeke.

2.700 SINADURA

Aste honetan, Arrasateko Udalean elkartasun mozio bat onartzeko eskaera aurkeztu da. Eskaerari babesa emateko 2.700 sinadura baino gehiago batu dira.

Honetaz gain, asteazkenean izandako prentsaurrean adierazitakoaren arabera, inguruko 34 lantegitako enpresa batzordeen bermea jaso du Pedro Mertzanen alde sortu den jende taldeak. Tartean ondokoak leudeke: San Juan de Dios Ospitale Psikiatrikoa, Algodonera San Antonio, Bergarako Udala, Arrasateko Udala, Roneo, Feliciano Aranzabal eta Fagor Elektragailuak enpresako Batzorde soziala. Hauetaz gain, sindikatu guztien atxikimendua ere jaso du Pedro Mertzane.

Zaldispetik ihesi

Zaldispent bizi diren bi familia portugaldarrak Arrasateetik joan egingo direla adierazi zuen asteazkenean SOS Arrazakeria taldeak udaltxeko osoko bilkura aretoan egindako prentsaurrean. Esan zutenez, "negua oso gogorra izan da bi familientzat eta gaitxotasun ugari jasan behar izan dituzte".

SOS Arrazakeriarentzat porrot handia izan da alde batetik, "portugaldarren alde ezer lortu ez izana eta bestetik, udalaren ongizate politika". Arrasateko Udaleko gobernu batzordearen jarrera itxia salatu zuten talde honetako bi kideek. Europako hainbat estatutako eskuin muturreko alderdi politikoetako alkateek darmaten jarrera xenofoboarekin alderatu nahi izan zuten Arrasateko Udala. Batez ere lagundu beharrean "oztopoak baino ez baitiete jarri bi familiei".

SOS Arrazakeriak taldeak kontu korronte bat ireki du familia portugaldarren



Arrasateko 46 erakundek portugaldarren aldeko idatzia sinatu zuten.

alde. Laster ekitera doazen ibilbide berrirako diru apur bat bildu nahi da. Zenbakia honako hau da: Kutxa: 2101. 0055. 62. 0122579261

BOST URTE HEMEN

Portugaldar hauek 1994. urtean etorri ziren lehenengo aldiz Arrasatera eta 1997a ezkerohementxe bizi izan dira, Zal-

dispent bi furgonetatan, hain zuzen ere. Erakunde publikoetatik laguntzak jaso ahal izateko, 1998an Arrasateko erroldan sartzea eskatu zuten, halaxe eskatzen baitu legeak. Hilabete luzeak gatazkan ibili ostean, irailean hirugarren aldiz Zaldispent uzteko agindua eman zuten Arrasateko Udalak.

Presoen alde eta atxiloketen aurka

Egunotan izandako atxiloketen aurrean, protesta ekintzak izan dira Arrasaten. Asteartean kale agerraldia izan zen arratsaldeko 19:30etan Sebero Altube plazan. Gaurko ere beste bat deitu dute HB eta AABB taldeek ordu berean Seberon. Honetaz gain, gaurkoa "borroka eguna" deitu du Jarraik.

Bestalde, larunbatean Bilbon euskal presoen alde egingo den Elkartasun Egunarekin bat eginez, kanpaldia eta etenik gabeko kale agerraldia egin ziren herrian, Gazte Ekimenak



Eskola Politeknikoko ikasleak agerraldian.

deituta. Eskola Politeknikoko ikasleak Arima Zuri plazan elkartu ziren. Euskal presoen

hurbiltzea eskatzeaz gain, presoen eskubideak errespetatzea eskatu zuten gazteek.



KIROL
MATERIAL
EGOKIAK
EZ DIO
BELDURRIK
ARRISKUARI



ARRASATE
KIROLAK

Kontzezino, 8
Tel.: 943 794 612
ARRASATE

Jaiotzak

- Ainara Aparicio Celemin. Otsailaren 21ean.
- Maialen Ortiz de San Justo. Otsailaren 27an.
- Imanol Iria Axpe. Martxoaren 1ean
- Leire Lasanta Zeziaga. Otsailaren 28an.
- Ane Zuloaga Vazquez. Martxoaren 3an.
- Alex Fernandez Torga. Martxoaren 3an.
- Jone Usatorre Olaizola. Martxoaren 4an.

Ezkontzak

- Jose Antonio Posada Martin eta Mercedes Oliva Vidriales. Zibilez. Martxoaren 5ean.
- Francisco Jose Agirre Legarda eta Ana Maria Urizarri Jaurregi. Elizaz. Martxoaren 6an.

Heriotzak

- Adelaida Martin Blanco. 63 urte. Otsailaren 23an.
- Teodoro Garcia Rodriguez. 87 urte. Otsailaren 25ean.
- Carmen Aurora Prado Martinez. 97 urte. Otsailaren 26an.
- Tomas Larrañaga Azkoaga. 94 urte. Otsailaren 28an.
- Jesus Sagasta. 70 urte. Martxoaren 1ean.
- Luis Miguel Blazquez Serrano. 47 urte. Martxoaren 1ean.
- Gregoria Erzilla Pagaldai. 95 urte. Martxoaren 6an.



Eroski aurrean bildu ziren ordu betez, emakumeak lanean daukan egoera kaskarra salatzen.

Bidezkoa dena eskatuz

Astelehenean, martxoak 8, emakume langilearen nazioarteko eguna izan zen. Hori dela eta, emakumea protagonista izan duten makinatxo bat ekitaldi egin dira Arrasaten aurreko astean hasi eta aste honetako asteazkena arte.

Asteburuan, adibidez, baserritar eta eskulangileen erakusketa egin zen larunbat goizean. Igandean, berriz, Legaleon taldearen "Mujeres al rojo vivo" antzezlanaren taularatu zen Amaia antzokian.

SALAKETA UGARI

Baina, emakumearen eguna beti ere emakumeen beharrak edo egoera salatzen erabili izan da. Izan ere, egoera nabarmen aldatu den arren,

oraindik ere, emakumeak bereizkeriak jasaten dituzte gizonarekiko. Hala nola langabezian, emakumeen langabeztasuna gizonarekiko baino altuagoa da, soldadak, aldiz, txikiagoak. Noski, ezin ahaztu etxekolanak gehienetan emakumearen esku gelditzen direla eta hortxe dugu tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeen egoera larria. Hori guztia eta gehiago gogoratu zuten astelehenean.

Goizean, Arrasate Irratian tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeen egoera aztertu zen. Eguerdian, berriz, Deba Garaiko ELA, LAB, STEE, ESK eta EHNE sindikatuetako ordezkariak kale agerraldia egin zuten.

Arratsaldean, hitzaldia egin zen Monterronen. "Emakumea zahartzen den gizartearen" izenburuarekin. Eta eguna bukatzeko, ezin ahaztu ohiko kale agerraldia. 19:30ean ateratu zen Seberotik. Berdintasuna aldarrikatu eta, Arrasateko Udalean Emakume Saileko teknikariarekin izandako auzia gogoratu eta salatu zuten.

Asteartean, hurrei zuzendutako txotxongilo saioa izan zen Monterronen eta azkenik, emakumearen nazioarteko eguneko ospakizunetara amaiera emanaz, asteazkenean "Lesbianismo y movimiento feminista" izeneko hitzaldia eman zuten Urizarri Alberdi hizlariak Monterronen.

CIMek 25 urte

CIM hizkuntza eskolak 25. urteurrena ospatzen du aurten. Hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatatu ditu. Asteazkenean, adibidez, Drama Group Europe antzerki taldeak, The adventures of Huckleberry Finn saioa eskaini zuen Amaia Antzokian.

Honetaz gain, hurrengo hilabeteotan, bestelako ekintzak ere izango dira urteurrena ospatzeko, hitzaldi saioak, eskolak ateak zabalduko ditu eta maiatza aldera kontzertua ere izango da kiroldegian.

Lehendakaritza berria Ibai Arten

Datozen bi urteetarako behintzat, Ibai Artek, Arrasateko Dendarien Elkarrekin, hiru lehendakari izango ditu: Arrasate Kirolak dendako Begoña Barreiro, Foto Imagen dendako Marcelino Gonzalez eta Beatriz Oinetakoak dendako Mertxe Trojaola. Era berean, hiru idazkari, hiru diruzain eta hiru bokal ere



Mertxe Trojaola.



Marcelino Gonzalez.



Begoña Barreiro.

izango ditu. Modu honetan, lana zuzendaritza batzordea osatzen duten hamabi lagun

nen artean banatuko da, errazte aldera. Hilean behin bilduko dira lanerako.

astea bi hitzetan

■ **Laguntza zabalagoa etxeetarako**

Udalak eskaintzen duen etxeko laguntza jaso ahal izateko orain arte zegoen eremua handitu egin da. Lehen, ezintasun larria zutenek ezin zuten mota honetako laguntzarik eskatu. Izan ere zerbitzu "desegoki edo gutxiegia" eman baino lehen, nahiago izaten zen profesionalen eskuetan jarri.

Bestelako berritisunik ere badauka zerbitzu honek, izan ere, hemendik aurrera, kontratu bat sinatu beharko dute bai zerbitzu erabiltzaileak eta baita zerbitzua ematen duen langileak ere. Modu honetan, bakoitzaren betebeharrak zeintzuk diren zehatz-mehatz finkatuko dira.

■ **Korrika eta emakumea**

Korrika kulturalaren barruan eta emakumeen eguna ospatzeko, sei rock taldek kontzertua eskaini zuten joan den larunbatean. Zea Mays, Dan-

tzut, Kashbad, Anari, Labrit Zabala eta Bi Kate musika taldeek. Lau bat orduz emakumea eta emakume ahotsa nagusi izan ziren Musakolako kiroldegian.

■ **Abere hazleak Mondragoen**

Deba Garaiko abere hazleek bilera izan zuten igande goizean Arrasateko udal-etxean. Elkartearen zuzendaritza batzordeak aurkeztutako 1998ko balantze ekonomikoa negatiboa izan zen. Hori dela eta, aurren abere hazleei Balio Erantsiaren Gaineko Zerga kobratzea erabaki zuten.

Bestalde, 1999ko erroka nagusia, ugaltze kontrola aurrera eramatea izango da. Honetarako, teknologia aurreratua erabiliko dute. Honetaz gain, baserrietan dauden abere guztien ezaggarriak informatikaren bidez kontrolatu nahi dituzte. Izan ere, Europako Bata-

sunak eskatzen dituen baldintzetara egokitzea ezinbestekoa dute.

■ **Zaborra hizpide**

"Zaborren problematika aztertzen" kanpainaren barruan, DBHko lehen zikloko ikasleak antzerki saioak egiten ari dira eskoletan. "Zabor horia, zer da hori" izeneko antzezlanaren bitartez, zaborrak sortaraz dezakeen arazoaz konturarazi nahi dituzte gazteak. Panta Rhei antzerki taldea dabil antzerki saioak egiten.

Era berean, laster gure herrietan ikusiko ditugun edukiontzi berriak ere aurkeztu ari zaie ikasleei, hau da, edukiontzi horia, metalzko ontziak jasotzeko balioko duena. Guztira, 1.500 haurrek hartuko dute parte egitasmoan.

Honetaz gain, asteburuan ere ikusle orori zuzendutako saioa eskainiko du Panta Rheik.



PRESOK ETXERA

"Herriaren borondatea euskal presoak Euskal Herrira" leloarekin ehundaka arrasatearrek euskal presoan hurbilketa eskatu zuten joan den larunbatean kale agerraldi baten bitartez. Kale agerraldiaren buruan Senideak, ESK, HB, EA eta Ezker Batua alderdietako ordezkariak joan ziren. Guztira 38 erakundek egin zuten agerraldirako deia.

“ 1998ko urtearen bukaeran langabezia tasa %16,4ra jaitsi da Euskadin. Orañdik ere handia da, baina aurreko jardueran egindako urratsak konfiantza eragin du, zeren datu hauek, bere horretan, adoretu egiten baitute enplegu gehiago sortzera. Baikortasuna autoelikatuta egiten da eta horregatik, ez litzateke harriztekoa 1999a bukatzerakoan langabezia tasa bizpahiru puntu gehiago jaitsiko balitz. Arrakasta itzela izango litzateke”.

JOSE MARIA ORMAETXEA
TU-Lankide, 1999ko otsaila

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiraletan
Setatik 8etara.
Tel.: 943 79 26 99

TTUKUN
Fotokopiak
Liburu jostekak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

UGARTE
Industria hornidurak
Arrasate pasealekua
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00
Faxa: 943-793412

LAKET
Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis
Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72



MUSIKA GURE KONTU

Itxaropenaren Ama Birjinaren egunean ohitura da neskek mutilekin afaldu eta soinuaria andreek ordaintzea. Denboraldi batez lagata egon ostean, 1998an Uribe auzoko andre hauek afari bat egin zuten sekulako giroa lortuz, horrela ohitura berreskuratzekotan.


ESKOLATIK ARKORA

Ostegunean doinu alaiz bete zitzaigun lantokia. San Viator eskolako 2.A eta 2.B mailetako 32 haur bisitan etorri zitzaizkigun, telebista eta aldizkaria non eta nola egiten ziren ikusi nahi zutela eta.



IRAGANA OROITZEN

1951. urteko soldadugaiak kontu zaharrak oroitzen ibili ziren larunbatean egindako bazkarian. 30 lagun bildu ziren, meza entzun, txikiteoan giroa berotu eta nola ez, barruak ondo bete zituzten Hostalen.



KARAPAIXOAK GARIZUMA ALAITU

Garizuman ezin falta Karapaixoa. Aita/amapuntakoek besoetakoari ezkondu artean eman behar dio zainduko duen adierazgarri. "Cara payasotik" omen datorkio izena opil hiruki honi.

LAGUN KONTUAK

Gaviota I taldeak, Gaviota II taldearen aurka jokatu zuen futbol partida otsailaren 20an.

Zazpi eta bi irabazi zuten Gaviota taldekoek "ohi bezala",

Ondoren, indarrak berreskuratzeko Txanpi Bodegan bazkaldu zuten. Nola ez, ostean, musean ere egin zuten "azpijoko eta keinu faltsuak" eginez. Baina umore ona beti gordez.



AUPA TXAPELDUNAK!

Alkartetxeko X Mus Txapleketako garaileak dira hauetxek. Jose Mari Lizarazu eta Patxi Murgoitio. 22 bikotereren artean irabazi zuten. Eta aizue, ez zuten partida bat ere galdu. Hori bai irabaztea, hori!



“Arizmendi”, Hezibidere

Hezibide orain dela 27 urte sortu zen. Eskola Politeknikoan du sorburua eta Caja Laboralen babesean egin zituen lehen urratsak. Hasiera batean “Liga de Educación y Cultura” zuen izena. Talde honek Hezkuntzaren ildoak jorratzen zuen eta aldi berean garai hartan zeuden talde kooperatibo guztien elkarrekin izan zen. Eskola Politeknikoak, orduko ikastolek, ETEOk eta Ahizke-CIMEk osatzen zuten. Gaur egun ere hasierako ildoari eusten dio Hezibidek, hezkuntza talde bat izaten segitzen baitu. Koordinazio lana egiteaz gain, irakaskuntzarekin lotura duten proiektuak sortu, bultzatu eta bideratu egiten ditu, eta nola-bait heziketa taldeen kudeaketa eta ekonomikoa bideratzeko funtzioa ere hartzen du beregain.

ARIZMENDI

Hezibideren barne dauden ikastolek hezkuntza eredia hobetu nahi izan dute, aldi berean eskaintza zabalduz. Hori dela eta, proiektu berria jarri dute abian: Arizmendi izeneko bigarren mailako kooperatiba. Proiektu hori orain hiruzpalau urte hasi ziren diseinatzen San Viator, San Frantzisko Xabier, Almen eta Umezaintzako zuzendaritza taldeak; Hezibideko Zuzendaritza Kontseiluaren eta Kontseilu Errektorarearen babesa ere izan du.

Hezkuntza garatzeko behararen fruitua da Arizmendi proiektua. Horixe adierazi digu Jose Ramon Zubizarretak, Hezibideko komunikazio arduradunak: “milurteko berriaren aurrean gure baiman erronka berriak eskaini



Arizmendi kooperatibako ikastolen zuzendariak eta Felix Ormaetxea, Hezibideko zuzendaria.

Gure gizartean hezkuntza arloan dauden hutsuneak bete eta hezkuntza arloko eskaintza hobetzea. Horixe da Hezibidek milurteko berriaren aurrean duen erronka. Proiektu hori gauzatzeko San Frantzisko Xabier, San Viator, Almen eta Umezaintza ikastolak batu eta “Arizmendi” bigarren graduko kooperatiba jarriko dute abian.

nahi genituen, eta Europan etorkizunari begira zein motatako irakaskuntza zentru planteiatzen dituzten aritu gara aztertzen. Oso garbi dago etorkizunari begira zentru indartsuak aurreikusten direla, kudeaketa oso indartsuarekin eta autonomia osoz. Guk ere horrantza jo nahi dugu. Bestalde, gure bailaran arazo handi bat dugu, gero eta ume gutxiago baitago. Ume horiei eskaintza zabalago eta aberatsagoa eskaini nahi genien, gure arteko zentruak elkarrekin kudeatuz”.

LEHENHITZ

Funtsean bi aldaketa nagusi ekarriko ditu Hezibideren proiektuak: lehen aldaketa

nagusia “Lehenhitz” izeneko kooperatibaren sorrerak ekarriko luke. Haur Hezkuntzako kooperatiba hau datorren ikasturtean jarriko da abian, San Viatorrek bi eta hiru urteko haurrentzat gela bana zabaltzarekin batera. Almen, San Frantzisko Xabier eta Umezaintzak lehengo eskaintzarekin segituko dute. “Lehenhitz” kooperatibak zuzendaritza bakarra izango du, eta 0 eta 6 urte bitarteko haurrentzako hezkuntza eskainiko du.

ALMEN ETA ARRASATE

Bigarren aldaketa nagusia zera litzateke: sei urtetik hemezortzi urtera bitarteko ikasleek bi aukeraren artean



Jose Ramon Zubizarreta.

“Milurteko berriaren eskaini nahi genituen zein motatako irakaskuntza aritu gara aztertzen”

etorkizunerako apostua



SFX ikastolako haurrak, aitona-amonen egunean, hauekin jolasten.



Almeneko ikasleak, adi-adi, ikaskide baten ipuina entzunez.



San Viator ikastolako zenbait ikasle.



206 haur ari dira gaur egun Umezaintzan.

hautatu ahal izango dutela. Batetik, sei urteko prozesu baten ondorioz, San Franzisko Xabier eta San Viator ikastetxeak bateratu egingo dira, eta "Arrasate ikastola" osatuko dute. Beste aukera Almen ikastetxeak jarriko du eskura, bere eskualde izaera bereziari eutsiz.

EKINTZA BERRIAK

Horretaz gain, Ekintza Berrietarako Kooperatiba bat ere izango da, Deba Garaiko eskualdeari hezkuntza eta kultura arloko zerbitzu osagarriak eskainiko dizkiona. Hor bi eratako prestakuntza eskainiko litzateke, Jose Ramon Zubizarretak adierazi bezala: "batetik etengabeko prestakuntza legoke, baina ez irakaskuntzari bakarrik begira. Baita gure bailaran egon daitezkeen hainbat sektoreri zuzendutako jardueretan ere. Adibidez, industria gunek nahiko bideratuta daude Deba

Garaian, baina gainontzeko sektoreetan hezkuntzaren ildotik abiatuz eransteko asko dago. Horretaz gain, sasoi batean ikasketak utzi zituen jendeari edo etxeetan egon daitezkeen gizon-emakumeei begira ere esparru bat landu nahi dugu. Beste arlo bat kulturarena izango litzateke, eta hau Mondragon Unibertsitatearekin lotuta legoke. Funtsen zerbitzu berriak eskainiko litzuzkeen kultura gunea sortzea litzateke".

Gizartean garatzeko gauza asko daudela adierazi digu Jose Ramonek, eta Hezibidekoek behar horiek antzeman eta gure gizarteko hutsuneen aurrean eskaintza on bat egin nahi omen dute.

Ea bada, orain arteko ildotari eutsiz milurteko berriaren aurrean zortea duen Hezibideko, oraindik urratu gabeko hezkuntzaren bideak hezitzen. ■

Maidar Osa

rrerean gure bailaran erronka berriak
ta European etorkizunari begira
ntza zentru planteiatzen dituzten

MANOLO QUEVEDO (MCC-KO KALITATE ARDURAR

“Pentsaezina zen Arrasate bezalako h

1964an etorri zen Arrasate-ra Donostiatik. Eskola Profesionaleko irakasle zen orduan. Gero Ikerlan sortu zuten bost lagunetako taldean hasi zen eta handik MCCko Kalitate eta Garapen Teknologiko saileko zuzendaritzara. Arrasate Margo Taldeko sortzaileetako bat ere izan da. Orain erretiratu egin da eta bere zaletasunari ekin dio, eta berak dioen bezala “bere bizitzako beste proiektu bati, erretiratu bizi-moduari”.

— Ezagutzen zenuen Arrasate etorri aurretik?

— 1964an etorri nintzen. Nahiko gertutik bizi izan nuen kooperatibismoaren sorrera. Ingeniaritza Eskolan ari gine-la, Arrasateko ikasle talde bat zebilen han. Giza mugimenduetan ari ginenontzako kooperatibaren asmoa oso erakargarria zen. Liluratu egiten gintuen. Gainera Jabier Rete-

giren lagun handia egin nintzen. Ikasi batera egin genuen eta soldaduska ere elkarrekin egin genuen. Berak eskola eta kooperatibak ezagutzera gonbidatu ninduen.

— Eskola Profesionaleko irakasle izateko etorri zinen?

— Ikasketak amaitu nitue-nean bi arlotan lan egiten nuen. Batetik, konkret sendotuko kalkuluak egiten nituen eta bestetik, eskolako irakaslea nintzen. Eskola Profesionaleko irakasle izatea amets hutsa zen.

— Nola bizi izan zenituen eskolan egindako urteak?

— Eskola grina handiarekin bizi izan genuen. Eskolaren proiektua gutako bakoitzak

genuen barruan. Sormen handiko garaia zen. Orduan, “elkar kutsatzea” zen kontua. Eskolako mugimendua intentsitate handiz bizi izan genuen. Hamar bat urte egin nituen han.

— Nola sartu zinen Ikerlanen?

— Eskolan I+G departamendu txiki bat geneukan. Jose Maria Arizmendiarrietaren garaian ikerkuntza eta garapen zentru bat eratzeko ausardia izan genuen. Departamendua hartan lan egiten genuen bitartean, Ikerlan izango zena garatu genuen. Zentru hori eratzeko arduradun izendatu ninduten. Hura beste abentura bat izan zen.

**— Ikerlaneko proiektu-
ren bat gogoratzen duzu?**

— Hasi ginenean gure sinesgarritasuna zegoen jokoan. Honelako ekimen batek bere bideragarritasuna erakutsi behar du. Konfiantza lortu behar genuen eta lehen proiektu haiek gogoratzen ditut modu berezi batean. Gaur egun bezeroaren asetzeari deritzana lortu behar genuen.



**Kooperatibismoa ez da inoiz izango
lagun kopuru ikaragarria
batuko duen plataforma;
ala bai?**

UN OHIA)

Herri batek unibertsitatea izan zezakeela”

— MCCko Kalitate eta Teknologia Garapeneko zuzendaria ere izan zara.

— Hura beste jauzi bat izan zen. Dena egiteko zegoen. Zer zen kalitatea eta teknologia-ren garapena? Lehenengo eta behin hura zer zen jakin behar genuen.

— Proiektu berrizalea zera, beraz?

— Horiek izan dira niretzat mugarri handienak eta orain laugarrena gelditzen zait: erretiratuarena. Hauetako bakoitzak bere xarma berezia izan du. Eskolak, genuen motibaizioagatik. Ikerlanek, instituzio berri bat eratzen ari ginelako eta MCCk, enpresari buruz genekien guztia enpresa zuzendaritzan aplikatzeko metodoak aurkitzen saiatzeagatik.

— Zer eman dizuete hiru proiektu horiek?

— Garapen pertsonala. Hirurek eragin dute garapen

pertsonalean, berrikuntza eta aurkikuntzaren bidetik. Orain proiektu berri bat aurkitu behar dut, nire desafio propioa.

— Profesionalki zer gelditu zaizu egin gabe?

— Ingelesa ondo ikastea eta, beste arlo batean, euskara ikastea.

— Nola baloratuko zenuke Eskolak izan duen garapena?

— Orduan inork ez genuen imajinatzen unibertsitate bat izatera helduko zenik. Arrasate bezalako herri batek unibertsitatea izan zezakeela pentsaezina zen. Eskolak lanpostuak eratzeko helburua zuen eta oso garrantzitsua izan da Arrasateko garapenean.

— Zer iritzi duzu MCCren eta kooperatibismoaren inguruan?

— Nire ustez kooperatibismoak hasieran izan zuen

indarra izaten segitzen du. MCCren proiektuak birtualtasun handia du: txikia eta handia lotzeko ahalmena. Honek haztea eta kooperatibak finkatzea dakar.

— Kooperatibismoa Europa Batu horretan enpresa pribatuaren alternatiba izan daiteke?

— Kooperatibismoa ez da inoiz izango lagun kopuru ikaragarria batuko duen plataforma; edo bai? Dena den, kapitalak eta enpresa kapitalistak gaur egun duten mugimendua ikusita, badirudi luzerako irauko dutela. Kooperatibismoaren abantaila zera da: lana eta jabegoa lotzea. Horrek gauzetara egokitzeko ahalmena areagotzen du, enpresa pribatuan baino gehiago. Noiz arte izango da baliagarria formula hau? Hori zaila da jakiten. Zergatik ez da Arrasatek kanpo beste honelako esperientzarik egin?

Agian gure idiosinkrasiarekin zerikusia izan lezake.

— Arrasate Margo Taldearen sorreran ere ibili zinen.

— Bai. Beti izan dut arlo horiekiko ezinegona. Hogeita hamar bat urte dira margotzen dudala baina, ez egungo intentsitatearekin. Herriak aukerak eskaini behar ditu. Horren harira, ikastaroetan ibilitako margolariak bakoitza bere aldetik zebileta ikusita, Jabier Arrietak eta biok Taldea eratzea erabaki genuen, jende hori batzeko asmotan. Egun hogeit bat lagun ari gara. Tokiak ere mugatu egiten gaitu. Arrasate nahiko kasu bitxia da. Gauzak egiteko ahalmena dauka.

— Zer iritzi duzu egungo Arrasateri buruz?

— Hobetzen ari da eten-gabe. Egokitzeko eta berri-tzeko dinamika dauka. Ekimen handia duen herria da. ■



Lan eskaintza

ARKO • Arrasate Komunikabideak

Maketatzailea / Diseinatzailea

Ezinbestekom baldintzak:

- Euskara ondo menperatzea
- QuarkXPress, Photoshop eta FreeHand ezagutzea

Kontuan hartuko da::

- Herri aldizkarien eta komunikabideen ezagutza
- Argazkigintza ezagutzea
- Internet ezagutzea

Curriculumak martxoaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dira, ARKOren egoitzan

Otalora Lizentziatua, 31 • ARRASATE Tel: 943 71 23 90 • Faxe: 943 71 23 89

Fagor Automation: urteko enpresa esportatzailea

Gipuzkoako Merkataritza Ganberak urteko enpresa esportatzailearen saria eman dio Fagor Automation kooperatibari.

Arrazoi hauek izan ditu ganberak saria emateko: esportazioak salmenten %65 ditu Fagor Automazionek, denak goi teknologian egindako produktuekin, eremu horretan munduan dauden bost multinazionalekin lehian, 45 estadutan salduz eta bere langileen %30ek atzerrian lan egiten dutela. Ikerkuntzari eta Garapenari (I+G), halaber, bere salmenten %12 eskaintzen dio; 70 langile ari dira I+G lanetan, plantilaren %25.

Julen Busturia kudeatzaileak jaso zuen saria Rodrigo Rato, Idoia Zenarruzabeitia, Felix Mendizabal eta bostehun bat enpresarioren aurrean.

HISTORIA

Fagor Automationen lehen hazia 1973an sortu zen, Fagor Taldeko elektronikaren eremuan. 1980an bere kasa hasi zen kooperatiba gisa, Aurki izenarekin. Gaurko izena, ostera, 1990ean hartu zuen.

Fagor Automazionek batik


bat makina erremintaren eremurako egiten du lan, makinaren automatiziorako eta kontrolerako produktuak eginez.

Urte txarrak bizi izan zituen 1990 eta 1993aren artean, makina erremintaren eremua krisian sartu zenean. Horrek enpresa jarduera eta plantila egokitzera eraman zuen. Indarturik atera zen, halere, krisialditik, Fagor Taldearen eta MCCren laguntzategatik eta bere jarduera nazioarteratzeko hartu zuen erabakiari esker.

NAZIOARTERATZEA

Oso goiz, 1981ean, konturatu ziren Fagor Automazioneko zuzendariak irtenbidea kanpoan zegoela. Urte hartan ireki zuten lehen ordezkari-tza Alemanian, Göppingen-en. Gaur egun 22 ordezkari-tza ditu, 45 herritan lan egiten dutenak. Bultzada honi esker, iaz 6.000 milioi pta.ko salmentak egin zituen, horietatik %65 esportazioetan lorturikoak.

Merkaturik garrantzitsuenak Ameriketan du (%40), Europan (%38), Asian (%21)



Aitor Irure lehendakaria eta Julen Busturia kudeatzailea.

eta beste kontinente batzuetan ere saltzen du. Aipatzekoa da Txinan lortu duen merkatua. Bezerorik inportanteenak industria aeronautikan eta autogintzan ditu. Aurten ere nazioartean egingo diren 14 azokatan hartuko du parte.

Arrakasta horretan zerikusi handia izan du Fagor Automazionek Ikerkuntzari eta Garapenari (I+G) eman dion garrantziak. Gure artean ez dago beste enpresarik proportzioan hainbeste jende, 70 lagun, horretan jarri duenik. Horietatik 25 etorkizuneko proiektuetan ari dira.

Honek guztiak eraman du Fagor Automation Europarako zenbaki kontrolerako sistema bakarra egiteko proiektuan parte hartzera.

ZABALKUNDEA

Iazko abenduaren 15ean Fagor Automazionek eta Usurbilgo Berriola Koop. Elk. batu egin ziren, Fagor Automation izenarekin. Gaur egun 440 langile ditu, 384 Arrasaten eta 56 Usurbilen.

Merezimendu osoz jaso du Fagor Automazionek urteko enpresa esportatzailearen saria. Zorionak!



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



Plastikozko
ontziak



Latak



Tetrabrikak



...zure esku dago

"Bueltaka - Bueltaka Birziklatuz"

Datozen egunetan honelako 127 edukiontzi jarriko ditugu Deba Garaian zehar. Zure laguntzarekin ingurugiroa zaintzeko bide horretan urrats handia emango dugu.

Eta horrela, lehengai eta energia gutxiago beharko dugu, kutsadura eta zaborrak ere gutxitu egingo dira, eta jakina, zaborteziak ere denbora luzeorako izango ditugu.

Gutxitu hondakinak, berriz erabili eta birzikla itzazu

Guztion mesedetan izango da



DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA



Atezainaren ipurdiak gelditu ote zuen baloia?

Irati STS eta Koka Juniors taldeen arteko norgehiagokan harrapatu genuen asteko irudia. Iratik irabazi zuen 6 eta 3, nahiz eta Koka taldeko atezainak ahal zuen guztiarekin saiatu zen. Baina ezin, eta ezintasuna horren aurrean, galdu! Baina lasai mutlak! Zuek ere sailkatu zaret, eta, bigarren aldirako.

Laburrak

■ AZKENEAN HAMAIKA

Dozena bat talde izango zirela aurreikusitako txapelketako bigarren aldira iritsiko ez zirenak. Baina oker geunden! Ez asko, ordea. Izan ere, talde bat gutxiago, hau da, hamaika izan dira Zaldibarko futbito txapelketako bigarren alditik kanpo gelditu diren taldeak, norgehiagokara ez aurkezteagatik. Azkena, B taldeko Potrosorri.

■ PARTIDA BAT GUTXIAGO

Lehen aldia partida bat gutxiagorekin amaitu da. Oraingotan ere elurrak du errua! Joan den larunbatean egindako elurteak Ke Oxtias eta Serengeti HC taldeek jokatu behar zuten norgehiagoka bertan behera gelditzea eragin zuen. Dena dela, partida hau ez da jokatuko, Ke Oxtias taldeak sailkapena poltsikoan duelako,

(nahiz eta norgehiagoka galdu) eta Serengeti taldea kanpoan dagoelako (nahiz eta irabazi).

■ BIGARREN ALDIKO ARAUDIA

Aurreko urteetan bezala, bigarren aldi araudiak aldaketa txiki batzuk izan ditu. Lehenengo eta behin, kontuan izan beharko dute futbitozaileek atezainari ezingo diotela baloia

eman gerri azpiko gorputz adarrekin (nahita). Bigarrenik, area barruko alboko sakaak ezingo zaizkio atezainari eman. Beraz, adi!

■ ZOTZ KANPOAN


Golaveragea dela eta, Zotz taldea bigarren alditik kanpo gelditu da, nahiz eta A taldeko Saukelu Scream eta D taldeko Kamasutra taldeekin berdinduta egon.

Haurdun bazaude, LAURA da zure jantzidenda.

Udaberriko moda gaztea jazteko, neurria ez da arazo izango.

Neurririk zabalenak ditugu.

Laura



Erdiko Kale, 30 • ARRASATE
Tel.: 943 79 05 80



Asteleheneko Mondrasport saioan egin zen zozketa.

Bigarren aldia abian

Joan den astelehenean egin zen Zaldibar txapelketako bigarren aldira pasatu diren taldeen zozketa. Mondrasport saioan egin zen eta hantxe egon ziren, Itxaro Zubillagarekin batera, Bittor Arriaran eta Iker Zai-

tegi, Zaldibar txapelketako antolatzaileetako bi kide. Barre algara eta bestelakoen artean, azkenean mahai gainean ipinitako lau kaxetatik eskuz aterra ziztuzten bigarren aldiko taldeen izenak.

Bigarren aldia lau talde eratu dira

A TALDEA

Txantxiku Kirolak
Irati STS
Dribling
Jotakabau
Aita Menni 2010
Leya
Komando Alpargat
Branka Taberna

B TALDEA

You Know
Potroak
KKJauri
Garaje Oscar
DKB
Koka Juniors
Fraguel Gol
Aldibi

D TALDEA

AC Surkos
Lontxo Taberna
Xhasss Ugarte
Aurrera Bolie
Diego Antonio
Pepelus
AT Celaya
Kamasutra

E TALDEA

Orlando Piratas
Naranja Mecanica
EPEH
Totem
Insert Coin
Sokoakoak
Ke Oxtias
Saukelu Scream

Hirugarren aldia ere prest

Hirugarren aldiko taldeen osaketa hau izango da.

Lehenengo taldea: A taldeko lehenengoak, B taldeko bigarrenak, D taldeko hirugarrenak eta E taldeko laugarrenak. Bigarrena: A taldeko laugarrenak, B taldeko lehenengoak, D taldeko bigarrenak eta

E taldeko hirugarrenak. Hirugarrena: A taldeko hirugarrena, B taldeko laugarrena, D taldeko lehenengo eta E taldeko bigarrena. Azkenengoan, A taldeko bigarrena, B taldeko hirugarrena, D taldeko laugarrena eta E taldeko lehenengoak.

Ipek

Iturriotz, 19 (Herriko Plaza) Arrasate

Sailkapenak

| A taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|----------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-----------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Aldi | Aurk. | Guzt. |
| ORLANDO PIRAT. | 17 | 16 | 0 | 1 | 96 | 39 | 32 |
| AC SURKOS | 17 | 13 | 3 | 1 | 118 | 52 | 29 |
| LONTXO TABERNA | 17 | 12 | 2 | 3 | 85 | 44 | 26 |
| XHASSS UGARTE | 17 | 12 | 2 | 3 | 100 | 60 | 26 |
| ALDIBI | 17 | 12 | 1 | 4 | 111 | 50 | 25 |
| INSERT COIN | 17 | 12 | 1 | 4 | 65 | 56 | 25 |
| PEPELUS | 17 | 9 | 4 | 4 | 58 | 54 | 24 |
| LEYA | 17 | 9 | 2 | 6 | 62 | 57 | 18 |
| KOM. ALPARGAT | 17 | 8 | 1 | 8 | 92 | 58 | 17 |
| KE OXTIAS!!! | 16 | 7 | 2 | 7 | 52 | 46 | 16 |
| SAUKELU | 17 | 7 | 2 | 8 | 39 | 40 | 11 |
| BUKANAK | 17 | 5 | 1 | 11 | 63 | 92 | 11 |
| SERENGETI HC | 16 | 4 | 2 | 10 | 46 | 67 | 10 |
| ALAI GOZOKIAK | 17 | 4 | 1 | 12 | 43 | 102 | 9 |
| MAKAI | 17 | 3 | 0 | 14 | 47 | 96 | 6 |
| REX 23 | 17 | 3 | 0 | 14 | 40 | 105 | 6 |
| BALON ROJO | - | - | - | - | - | - | - |
| ROTOR BOLBO. | - | - | - | - | - | - | - |

| B taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|----------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-----------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Aldi | Aurk. | Guzt. |
| TXANTXIKU KIR. | 17 | 16 | 0 | 1 | 128 | 36 | 32 |
| IRATI STS | 17 | 13 | 2 | 2 | 80 | 36 | 28 |
| NARANJA MEC. | 17 | 12 | 3 | 2 | 104 | 54 | 27 |
| KKJAURI | 17 | 11 | 2 | 4 | 85 | 60 | 26 |
| GARAJE OSCAR | 17 | 10 | 2 | 5 | 68 | 44 | 22 |
| AURRERA BOLIE | 17 | 10 | 0 | 7 | 61 | 50 | 20 |
| DIEGO ANTONIO | 17 | 8 | 4 | 5 | 56 | 60 | 20 |
| DKB | 17 | 9 | 2 | 6 | 67 | 67 | 20 |
| KOKA JUNIORS | 17 | 8 | 3 | 6 | 59 | 51 | 19 |
| AT CELAYA | 17 | 8 | 2 | 7 | 54 | 63 | 18 |
| ZOTZ | 17 | 7 | 2 | 8 | 58 | 63 | 16 |
| ETXE MOBEL | 17 | 3 | 1 | 13 | 32 | 87 | 7 |
| POTOSORRI | - | - | - | - | - | - | - |
| LOS HEREDIA | - | - | - | - | - | - | - |
| LAUTERBRUNNEN | - | - | - | - | - | - | - |
| ATERPE KAFE. | - | - | - | - | - | - | - |
| BORROCK&ROLL | - | - | - | - | - | - | - |
| PUB ARROGOI | - | - | - | - | - | - | - |

Emaitzak

A TALDEA

Bukanak 3 - Kom. Alpargat 6
Lontxo tab.1 - Rotor Bolbo. 0
Insert Coin 5 - Alai Gozokiak 2
Saukelu Scream 1 - Orlando Pir. 2
Rex 23 1 - Balon Rojo 0
Ke Oxtias - Serengeti HC
Xhasss Ugarte 4 - Aldibi 6
Leya 10 - Makai 6
Pepelus 1 - AC Surkos 9

B TALDEA

Borroock&Roll 0 - Diego Antonio 1
DKB8 - KKJauri 4
Los Heredia 0 - Txantxiku Kir. 1
Aurrera Bolie 2 - Garaje Oscar 6
Etxe Mobil 1 - Aterpe Kafetegia 0
Naranja Mecanica 6 - Zotz 2
Lauterbrunnen 0 - AT Celaya 1
Potrosorri 1 - Pub Arrogoi 0
Irati STS 7 - Koka Juniors 3

D TALDEA

Potroak 3 - Kamasutra 4
Dribling 2 - Branka Taberna 4
Decadencia 0 - Sokoakoak 1
Fraguel Gol 4 - Betrayer 2
EPEH 3 - Bar Nuevo 1
Totem 5 - Jotakabau 4
Jako al Rey - Eusko Label
Aita Menni 2010 3 - You Know 5

D taldea

| D taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|-----------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-----------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Aldi | Aurk. | Guzt. |
| YOU KNOW | 16 | 15 | 1 | 0 | 87 | 33 | 31 |
| POTROAK | 16 | 11 | 2 | 3 | 78 | 47 | 24 |
| DRIBLING | 16 | 10 | 3 | 3 | 81 | 55 | 23 |
| EPEH | 16 | 9 | 4 | 3 | 58 | 58 | 22 |
| BRANKA TAB. | 16 | 8 | 5 | 3 | 76 | 52 | 21 |
| JOTAKABAU | 16 | 9 | 1 | 6 | 48 | 44 | 19 |
| TOTEM | 16 | 9 | 1 | 6 | 63 | 47 | 17 |
| AITA MENNI 2010 | 16 | 8 | 1 | 7 | 62 | 58 | 17 |
| FRAGUEL GOL | 16 | 7 | 3 | 6 | 59 | 53 | 17 |
| SOKOAKOAK | 16 | 8 | 1 | 7 | 52 | 60 | 17 |
| KAMASUTRA | 16 | 7 | 2 | 7 | 63 | 51 | 16 |
| BETRAYER | 16 | 6 | 2 | 8 | 56 | 59 | 14 |
| BAR NUEVO | 16 | 6 | 2 | 8 | 54 | 60 | 14 |
| CONS. LUSO | 16 | 1 | 0 | 15 | 28 | 92 | 0 |
| DECADENCIA | - | - | - | - | - | - | - |
| EUSKO LABEL | - | - | - | - | - | - | - |
| JAKO AL REY | - | - | - | - | - | - | - |



Hurrengo partidak

Martxoak 13, larunbata

Zaldibar
08:50 Garaje Oscar - DKB
10:00 Potroak - Fraguel Gol
11:00 EPEH - Sokoakoak
12:00 You Know - Aldibi
13:00 Irati - Kom. Alpargat.
14:00 AC Surkos - Kamasutra
15:00 Naran. Mec. - Ke oxtias!!!
16:00 Jotakabau - Aita Menni
17:00 Aurrera Bol. - Diego Ant.
18:00 Lontxo - AT Celaya
19:00 Totem - Insert Coin

Martxoak 14, igandea

Zaldibar
08:50 Orlando Pir. - Saukelu
10:00 KKJauri - Koka Juniors
11:00 Txantxiku - Branka Tab.
12:00 Dribling - Leya
13:00 Xhasss - Pepelus

ARRASATE KIROLAK
Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

HIES

EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiraletan
5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

LASER DEPILAZIOA

- Behin betikoa, azkarra, ez du minik egiten
- Depilazio sistemak, zerbitzu medikuaren bermearekin
- Aholkularitza eta aurrekontuak

Itaca Zentru Mediku eta Estetiko

Dr. Juan Carlos de Andrés Guerra.
General Alava 7. GASTEIZ. Tel.: 945 13 92 56 FPS. 492/98

Garajea salgai
Laukalen
(Roneon)

Tel: 943 79 01 71
Arratsaldeko 19:00etatik
22:00etara

Udalako Trialsin Txapelketako irabazlea

OIHANE URREZOLA

“Bi proba gelditzen dira, eta biak irabaziz gero, txapelduna izango naiz”

— Nesken artean txapeldun izan zinen Udalan. Espero zenuen horrelakorik?

— Bi lagun aritu ginen, Maitane eta biok. Elkarrekin lehiatzen gara beti eta oraingoan nik irabazi nuen.

— Gipuzkoako txapelduna izango zara?

— Bi proba gelditzen dira eta biak irabaziz gero, txapelduna izango naiz. Orain, bigarren naiz, Maitanegandik hiru puntura.

— Noiz izango duzu hurrengo proba?

— Igandean izango da, Arantzazun.

— Etxetik gertu izanda, ondo ibiliko zara, ezta?

— Beno, ikusi egin behar, baina bai, Arantzazu eza gutzen dut. Baliteke irabaztea.

— Nolatan hasi zinen trialsinean?

— Nire anaia zaharrena izan zen lehena. Neu harekin joaten nintzen entrenatzera. Hori orain urtebete izan zen. Orain nire anaia gazteena ere nirekin entrenatzen hasi da. Bost urte ditu eta Udalan ere ibili zen, txapelketatik kanpo.

— Zer diote zure gurasoek?

— Amak asko laguntzen dit eta baita aitak ere. Familia guztia joaten gara probetara: hiru anai-arrebak lehiatzera eta gurasoak animatzera.

— Eta anaiak?

— Aholkuak ematen dizkit.

— Zer duzu gustuko, bizikletaz gain?

— Pianoa ere jotzen dut, baina ez dakit bietatik zeinekin geldituko nintzatekeen. Biak ditut gustuko.



FUTBOLA Golik gabe




Huts eta hutseko berdinketarekin amaitu zen igandean Atxabalpen jokatu zen norgehiagoka.

Aurrez aurre preferente mailako Mondra eta Lazkao aritu ziren, baina ez bata eta ez besteak ezin izan zuten aurkariaren atea gaintu. Biek izan zituzten aukerak. Baina bi atezainak fin aritu ziren. Mondrako atean, gainera, Borja Txasko, taldeko azken fitxajea jarri zuen Jabier Letona entrenatzaileak eta partida ona jokatu zuen gasteiztarrak.

Partida amaitu aurretik penaltia eskatu zuten mondragoetarrek Pellori egindako sarreragatik, baina epaileak ez zuen horrelakorik ikusi. Mondrak 17. dirau sailkapenean, 28 punturekin eta atzeko tokietatik urruntzeko desiatzen. Aste honetan Oiartzunen aurka leihat beharko da. Oiartzuarrak hirugarrenak dira sailkapenean. Beraz, erronka garrantzitsua dute serrarriari. Izan ere, aurreko aldian 1 eta 2 galdu zuten Oiartzunen.

ESKUBALOIA Azken unea arte



Arrasate Eskubaloi Taldea garaipena lortzeko zorian izan zen larunbatean. Markagailua gori-gori ibili zen partida osoan Arrasatek eta Deustuak jokaturako norgehiagokan. Lehen 15 minutuetan nahiko parekatuta ibili ziren bi taldeak eta bigarren zatian ere joko ona erakutsi zuten Bernardo Balerdiren mutilek.

Epaileek hartutako hainbat erabaki ere erabakigarriak izan ziren azken minutuetan. Anjel Moralejak bi minutuko hiru zigor bete behar izan

zituena. Azkenean, gainera, kanporatu egin zuen epaileak.

Azkenean Arrasatek 27, Deustuak 29. Beraz, eskuan zeukaten partidari ihes egiten laga zioten mondragoetarrek. Hori dela eta, sailkapeneko azken putza edo faroltxo gorria izaten segitzen dute, garaipenik gabe. Asteburu honetan sailkapeneko bigarren doan Usurbil taldearen aurka arituko dira.

TXIRRINDULARITZA Hasiera hotza



Afizionatu eta gazte mailako herriko txirrindulariek joan den asteburuan

ekin zioten denboraldiari. Born Jay taldekoek Santanderren zuten lehen lasterketa. Elurra zela eta, arazoak izan zituzten Santanderrera iristeko. Azkenean, Del Riok eta Mendizabalek hartu zuten parte, baina ez zuten zorte handirik izan. Igandean, bestalde, Atarrabian eta Laudion aritu ziren, baina ezin izan zuten ezer egin Olarra taldeko txirrindularien aurrean. Aste honetan Lasarteko proba mitikoa jokatu dute Born Jay taldekoek.

Gazte mailan, Fagor taldekoak Eibarren izan ziren igandean. Gogorra izan omen zen proba. Izan ere, taldeko sei txirrindulariak erretiratu egin ziren.

JUDO Espainian ezin



Itziar Zabala Espainiako junior mailako judo txapelketan izan zen joan den asteburuan. Malagan jokatu zen txapelketa hau, baina mondragoetarrek ezin izan zuten lortu garaipena Andaluzian.

Txirrindulari lasterketa Arrasaten

Arrasate Txirrindulari Elkar-teak "V Udaberri Sari Nagusia" antolatu du larunbat hone-tan, Arrasaten. Gipuzkoako gazte mailako bigarren txi-r-rindulari lasterketa izango da, gainera. Beraz, garaipena edonork eskura dezake, denak ere denboraldi hasieran dabil-tza eta.

Irteera 15:30etan izango da, Garibai kalean. Iaz beza-la, 78 km izango ditu.

Fagor taldeko Txema Galan, Gorka Almaraz, Iker Bernal, Aitor Odriozola, Imanol Solis eta Josu Beitia ari-tuko dira herriko taldean. Iaz-ko lasterketa Ciclos Iñigo tal-deko Jon Oregik irabazi zuen, aurten afizionatuetako Ulma-Cegasa taldera pasatu den txi-r-rindulariak.

BESTE LASTERKETAK

Afizionatu mailako txirrin-dulariak Euskal Herriko tro-feoko proba izango dute larun-batean Villa Tuertan. Igan-dean, berriz, Nafarroatik Gipuzkoara itzuliko dira. Izan ere, Lasarteko klasikoa izan-go dute zain. Lasarteko las-terketa hau baliagarria izan-go da Espainiako txirrin-du-laritzta federakundeak antola-tu duen Espainiako kopara-ko.

Frontenis txapelketa

Udaberriko III Frontenis Txa-pelketa jokatu da martxo-aren 27tik aurrera Musakola-ko kiroldegian. Txapelketan izena emateko epea martxo-aren 23an amaituko da. Deba Garaiko udal kiroldegietako bazkideek 1.500 pta ordain-du beharko dituzte; bestee,

Kenci: saskibaloit taldeko babeslea

Babesle berria izango du Arra-sate Saskibaloit taldeak. Eran-dioko Kenci enpresak babes-tuko du hemendik eta den-boraldi amaiera arte senior mailako saskibaloit taldea. Kenci enpresak taladrina eta plaka txikiak egiten ditu Espainiako hainbat enpresa-rentzat. Hemendik aurrera, hala ere, Arrasaten herriko senior mailako saskibaloit tal-dearen babeslea izateagatik ezagutuko dugu.

Orain arte taldeak herri-ko hainbat erakunderen lagun-tza izan du. Baina Kencire-kin babesle ofiziala izango du eta laster elastiko berriak ere izango ditu. Kenci-Arrasate izango da, beraz, hemendik aurrera taldearen izena.

LARUNBATEKO PARTIDA

Kenci-Arrasate taldeak Bil-boko Torregi La Peña talde-aren bisita izan zuen larun-batean Iturripen. Bilbotarrak lehenengoak ziren sailkape-nean, baina Arrasatera etor-tzeak lehen tokia galtzea era-gin zien. Izan ere, Danel eta

Zesarren taldeak sekulako norgehiagoka jokatu zuen. Bilbotarrak nekatuta etorri ziren, ostiralean ere beste norgehiagoka bat jokatu zute-lako. Gauzak horrela, mon-dragoetarrek joko azkarra erabili zuten bilbotarrei gai-lentzeko eta lortu ere, aise lor-tu zuten. 79 eta 62 irabazi zuten mondragoetarrek, hiru jokalarit faltan zirela.

Aialak, Dublanek eta Alvarezek ez zuten jokatu,

min hartuta daude eta.

Gamarra izan zen saski-ratze gehien lortu zuen joka-laria, 22 puntu. Gorostidik 15 lortu zituen eta Mallabiaba-rrenak, berriz, 13.

Kenci-Arrasate taldea sailkapeneko hirugarrena da dagoeneko eta larunbatean, Quiser Orio taldearen aurka arituko da. Oriotarrak azke-neak dira sailkapenean, beraz partida samurra izan liteke mondragoetarrentzat.



Urtarrilaren 23an Larraonaren aurka jokatutako norgehiagokan.

Bigarrenari eutsi nahian

Eguraldi kaskarra izan zuten senior mailako errugbilariek larunbateko partidari. Elurrak erabat lokaztu zuen zelaia eta horrek ere eragin handia izan zuen norgehiagokan. Dena dela, zarauztarrek Patxi Goro-sabalen mutilek baino sasoi hobia erakutsi zuten lokatz artean eta nahiko erraz irabazi zuten.

Lehenengo zatian zarauz-tarrak aurreratu ziren markagailuan entsegu bati esker. Bigarren zatira 3 eta 10eko emaitzarekin iritsi ziren. Bigar-rren zatian ere bisitariak izan ziren markagailua aldarazi zutenak eta hortxe etorri zen

Patxi Gorosabalen taldearen gainbehera. Azken emaitza Arrasatek 3, Zarautzek 37.

Hauxe izan zen mondra-goetarrek etxean galtzen duten denboraldiko bigarren partida. Sailkapeneko biga-

rren tokia arriskuan dago orain.

Bihar Elorrioren jokatuko dute senior mailakoek. Elo-rrioko taldea sailkapeneko hirugarren tokian dago, arra-satearren atzetik.



Lokatza izan zen nagusi Garagartzan.

“Txio-Txioka”, Taun-Taun antzerki taldearen lana

Begarako Taun-Taun antzerki taldeak Bernardo Atxagaren “Txio-Txioka” ikuskizuna eskainiko du martxoaren 14an, igandean. Ikuskizuna Amaia antzokian izango da, arratsaldeko bostetan.

Begarako Taun-Taun antzerki taldea duela 10 urte sortu zen, eta zortzi ikuskizun dituzte. Ikuskizun horiek guztiak helduentzako zuzendutakoak dira. Lau lagunek osatzen dute taldea: Iñaki Mata antzuolarrak, Itsaso Azkarate begararrak eta Santi Ezkurra eta Karlos Odriozola donostiarrek.

LAN HANDIA

Taun-taun taldeko Itsaso Azkaratek adierazi digun bezala, ikuskizun bat prestatzeak lan handia dauka: “lehenengo zer prestatu pentsatu behar da, eta baita nola eta norekin ere. Landuko den gaia eta ipuina ere hautatu behar da. Gero entseiuak datoz, eta txotxongiloak ere egin behar dira. Gero prestatutako produktu hori saldu egin behar da, enpresa baten antzera funtzionatzen baitu gure taldeak. Ikuskizuna atzerrian bada,



Taun-taun antzerki taldekoak, “Txio-txioka” antzezlaneko protagonista diren txitoen aurrean.

horrek askoz ere lan handiago eskatzen du”.

Nazioarteko txotxongilo jaialdiak ere antolatu izan dituzte Taun-taun antzerki taldekoek. 1992an egin zuten lehenengoa. Urte birik behin hartzen dute lan hori, eta Begararen antolatzen dute jaialdia.

TXITOAK PROTAGONISTA

Igandean eskainiko duten “Txio-txioka” ikuskizuna Bernardo Atxagaren “Txitoen istorioa” izeneko ipuinean oinarrituta dago. Ipuin honetan zinemara joan gabe gelditu baino gosez egon nahiago zuten txito batzuen istorioa kontatzen da. Zine-

mako lehen lerroan eseri eta pantailako argia pizten zenean, gosea ahazten omen zitzairen.

Kontakizuneko txitoen antzera, txotxongiloak ikusiaz gosea ahaztu nahi baduzue, 300 pta. ren truke eskuratu ahal izango dituzue sarrerak Amaia antzokiko lehiatilan bertan.

GALIZIA

- ▮ 6 egun
- ▮ Irteera Santandertik, Bilbotik, Donostiatik, Gasteiztik, Logroñotik eta Iruñetik
- ▮ Martxoaren 31tik (bidaia gaez) apirilaren 5era
- ▮ Hotela**/**
- ▮ Gela bikoitza P.O 22.500 pta.
- ▮ Ohe Gehigarria 7.500 pta.

MADRIL

- ▮ 5 egun
- ▮ Irteera Bilbotik, Donostiatik, Gasteiztik, Santandertik, Iruñetik eta Logroñotik
- ▮ Apirilaren 1etik 5era
- ▮ Rex Hotel ***
- ▮ Gela bikoitza eta Gosaria 39.500 pta.

KONKISTATZAILEEN IBILBIDEA

- ▮ 7 egun
- ▮ Martxoaren 31tik apirilaren 5era
- ▮ Hotel ***Bikoitza Gos.Eg.
- ▮ Bilbotik, Donostiatik eta Gasteizetik 48.500 pta
- ▮ Iruñetik, Santandertik eta Logroñotik 51.400 pta.
- ▮ Ohe gehigarria 26.900 pta.

Aste Santuan nora joan behar duzu?

Galdetu gure eskaintza bereziaz.

Iturriotz, 23 • ARRASATE • TEL.: 943 79 29 88



BEHI BI'S, HAURRENTZAKO TXOTXONGILO ETA ANTZERKI TALDEA

“Emankizun bat taularatzea erditzea bezalakoa izaten da”

Behi Bi's taldea 1992an sortu zen, eta Patrizia Franko eta Ane Garmendia dira “bi behiak”. ATBn “Motelak” saioa egin zuten garai bateko “Kukaratxa motel” programan. Aste honetan, berriz, Arrasaten izan ditugu bisitari, “Printzesa borrokalaria” beren antzeziana eskaintzen.

— Zerk bultzatu zintuztetan txotxongilo eta antzerki arloan lan egitera?

— Betidanik sentitu izan dugu erakarpen berezia antzerkiarekiko, eta horretan hasi ginen. Ni antzerkigintzan, eta Patrizia txotxongiloekin. Gero, biok bat egin genuen.

— Zer eskaintzen duzue zuen emankizunetan?

— Ipuin kontalariek kontatzen duten gisako istorioa da, baina espektakulu itxura handiagoa ematen diogu.

— Kontatzen dituzuen ipuinak nork asmatzen ditu?

— Ipuin kontalarien istorioetan beste norbaitek idatzitako ipuinak hartzen ditugu, nahiz eta aukezteko modua moldatu egin behar den. Txotxongiloen kontakizunetan gidoiak guk geuk asmatzen dugu.

— Zenbat ikuskizun dituzue?

— Bost, eta guztietan gai bat lanzen dugu. “Printzesa borrokalaria”n emakumearen askatasuna, “Bertsotas”en kontsumoa eta garbitasuna, “Muga mundu”n ingurugiroa eta “Zuk zeuk” kontakizunean publizitatea. “Txakur handi, beltz eta iletsu bat”, oso haur txikiarentzako istorioa da.



— Pentsatu duzue helduentzako emankizunik egitea?

— Bai, baina guztiz ezberdina da: publikoa, beren jarrera... bestelakoa da. Dena den, badirudi umeek edozer gauza ikusten dutela, baina umeak oso kritikoak dira eta oso publiko gogorra osatzen dute.

— Zer duzue lanbide honetatik gustukoena?

— Taularatzen zaren momentu hori oso gustukoa da. Baita haurren erreakzioak ikustea ere.

— Antzezlari baten atzean zein lan dago?

— Sekulako lana dago. Errazena eta politena espektakulua moldatuta duzunean, hori taularatzea da, baina hori baino lehen ipuina aukeratu behar da edo gidoia idatzi, panpinak egin, emankizunak nolakoak izan behar duen pentsatu, musika aukeratu, argiek ere lan handia ematen dute, entseiatu... Emankizun bat taularatzea erditzea bezalakoa izaten da; egin ostean “egin dugu” pentsatu eta askatasun berezia sentitzen da.

“Badirudi umeek edozer gauza ikusten dutela, baina umeak oso kritikoak dira”

aste gazte

■ KONTZIENTZIA ERAGOZPENEA

• Intsumisioa edo objektioaren gainean zalantza edo arazorik baduzu, pasa zaitez Gazte Bulegotik eta hemen emango dizugu paperak tramitatzeke behar duzun informazioa.

■ GAZTEAK LANKIDETZAN

• 20-31 urte arteko gazteei zuzenduta, udako hiru hilebetean Hirugarren Munduko herrietan antolatzen dituzten elkarlan eta lankidetzak jardueretan parte hartzeko aukera. Informatikoak, ekonomilariak, medikuak, erizainak, osasun laguntzaileak, pedagogoak, begirale edo hezitzaile sozialak, ingeniariak, agronomoak, arotzak, elektrizistak e.a. behar dituzte, ikasketa hauekaren bat egin izatea beharrezkoa ez den arren. Epea: martxoak 31.

■ LANA

• Bilboko Udalerako arkitektua: Epea: martxoak 17.
• Zizur Nagusirako, famili langileak: Epea: martxoak 22.
• Nafarroako Gobernurako, kazetaria: Epea: martxoak 22.
• Euskara eta goi mailako teknikari postua, Nafarroako Gobernurako: Epea: martxoak 28.

■ LEHIAKETAK

• “Julene Azpeitia” ipuin lehiaketa Durangoko Udalak antolatua. 17 urtetik gorakoek zuzenduta. Lanek euskaraz, gai librean, gutxienez 12 orrialdeko luzeraz eta argitaratu gabeak behar dute izan. Epea: apirilak 19.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65



Erramun Irastorza eta Antton Olariaga ATBn

Aste honetan zer ikusi ugari dago ATBn. Asteartean, 21:30etan, Garikoitz Kortazarrek Erramun Irastorza izango du Munduari Bueltaka. Erramunek Salomon izeneko abentura kirol frogan parte hartu du. Salomon kirol abentura frogak mendiko bizikleta, eskalada, igeriketa eta antzeko kirolak uztertzen ditu.

Rosa Mondragonek zuzentzen duen Mahai inguruan, erretiratuak izango dira gonbidatu. Aurtan erretiratuen nazioarteko urtea dela eta, zenbait lagun izango dira gaiari buruz solasean. Gaueko 21:00etan izango duzue aukera.

Ostegunero legez,

Aitziber Langaran eta Unai



Erretiratuak Mahai inguruan.

Iparragirrek gonbidatu bikaina ekarriko digute Kaleidoskopiora. Antton Olariaga marrazkigilea, hain zuzen ere. Antton *Zakilixut* pertsonaia famatuaren aita da eta Santamasetako hormirudia ere egin izan du askotan. Antton Olariaga gehiago ezagutu nahi izanez gero, piztu ATB ostegunean, gaueko 21:30etan.

■ ATBren programazioa

| LARUNBATA, 13 | ASTELEHENA, 15 | ASTEARTEA, 16 | ASTEAZKENA, 17 | OSTEGUNA, 18 | OSTIRALA, 19 |
|---|--|--|--|---|---|
| <p>13:30 Asteko programarik interesgarrienen errepika: Musiklasik, Aurrez-aurre, Kaleidoskopioa, Soinuz Blai eta Astebete.</p> | <p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Astebete. (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Mondrasport. Itxaro Zubillaga kazetariak aurkezturik, asteburuko kirolei errepaso.</p> | <p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Mondrasport. (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Munduari bueltaka. Aste honetako gonbidatua: Erramun Irastorza.</p> | <p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Munduari bueltaka. (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:00 Mahai ingurua. Rosa Mondragonek aurkeztutako eztabaida saioa.</p> | <p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Mahai ingurua. (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Kaleidoskopioa. Aste honetan Antton Olariaga zakilixut-en aita famatua izango da.</p> <p>22:00 Soinuz Blai. Iban Gonzalezek aurkeztzen duen musika saioa.</p> | <p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Kaleidoskopioa (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Astebete. Astean zehar gertatu diren albiste garrantzitsuenen errepaso, Maider Osak aurkezturik.</p> <p>22:00 Soinuz Blai. Iban Gonzalezek aurkezturiko musika saioa.</p> |
| <p>IGANDEA, 14</p> <p>13:30 Asteko programarik interesgarrienen errepika: Musiklasik, Aurrez-aurre, Kaleidoskopioa, Soinuz Blai eta Astebete.</p> | |  |  | | |
| | | Garikoitz Kortazar. | Rosa Mondragon. | | |

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxebizitza salgai. Tel.: 943 79 45 58.

• Etxe bat salgai Aldai kalean. Lau gela, bi komun, egongela eta ezkatza. 100m². Garajea aukeran. Tel.: 945 46 14 78.

• Etxebizitza salgai Elorregi auzoan, Bergaran. Tel.: 943 76 07 47.

2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 649 20 35 12.

4. Errentan hartzeko

• Pertsona bakararentzako teilatupea alokatu nahi dut. Tel.: 943 79 59 60.

• Bikoteak etxebizitza alokatuko luke. Tel.: 943 65 45 40 / 943 72 30 25 (20:00etatik 22:00etara).

• Etxebizitza nahi dugu alokatu, Arrasaten edo inguruan. Tel.: 94 447 04 61

5. Etxeak osatzeko

• Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu Aramaion. Tel.: 617 600 265 (bertan mezua laga).

• Logela baten bila nabil etxebizitza partekatu batean. Tel.: 943 42 98 19 (Noel).

• Pertsona euskalduna behar da etxebizitza osatzeko Arrasaten. Tel.: 943 85 04 86.

• Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Asteazken zehar Cordoba y Oro, 6 - 5. ezkerrean jo edo beste la deitu asteburuetan 943 88 43 33 telefonora.

GARAJEAK

7. Saldu

• Garaje toki bat saldu nahi nuke Munarren. Tel.: 943 79 44 07.

• Garaje itxia salgai Larrea aldean, 25m²koa (bi autorentzako lekua dauka). Tel.: 943 79 69 41 (Mari).

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Garajea salgai Laukalen (Roneon). Tel.: 943 79 01 71. (19:00etatik 22:00etara).

• Garajea salgai Kontzezinon. Tel.: 943 79 54 07.

• Garajea salgai. Bi autorentzako lekua du. 40m². Aldai kalean. Tel.: 945 46 14 78.

9. Errentan emateko

• Garaje itxia alokatzeko, Uribarri Etorbidean. Tel.: 943 79 35 24.

10. Errentan hartzeko

• Garaje bat alokatuko nuke Musakola aldean. Tel.: 943 79 21 46.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Lanean dabilen negozioa eskuz aldatuko nuke. Tel.: 943 79 47 85.

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu 100m²ko bi solairu dituen tokia salgai. Tel.: 943 79 07 24.

14. Errentan emateko

• Artista: zure obra gauzatzeko toki lasai eta barea behar baduzu, Arrasateetik hurbil, Deba Garaian tailer bat daukat elkarrekin erabiltzeko. Tel.: 943 71 42 86.

• Ille apaindegia eta edertze aretoa alokatzeko. Santamainan, 14-behea. Tel.: 943 79 73 43 (Mertxe).

• Enpenezako lekuak dauzkagu alokatzeko, ura eta argindarrarekin. Era honetako jarduerak egin litezke hemen: muntaketa, prentsa, pintaketa, soldaketa eta galdaragintza. Tel.: 608 770 786.

• Uribarri etorbidean 90 m²ko tokia alokagai. Tel.: 943 79 75 37 (Iluntzeko 20:00etatik aurrera).

15. Errentan hartzeko

• Lagun talde batek lokal bat alokatuko luke, Arrasaten edo inguruetan. Tel.: 943 79 87 40 (Iker). Deitu 21:30etatik aurrera.

• Lagun talde batek hutsik duzun txoko hori alokatuko luke. Tel.: 943 79 65 31.

• Gazte talde batek toki bat alokatu nahiko genuke Arrasaten. Tel.: 943 79 40 65 (Maitane).

• Garaje edo toki txiki bat alokatuko genuke. Tel.: 943 79 72 93.

LANA

17. Eskaintzak

• Esperientziadun andra gertu etxeko lanak egiteko orduka. Tel.: 943 79 11 46 (asteburuetan deitu).

• Zazpi urteko esperientziaduna lan egiteko prest jatzetxe edo taberna batean zerbitzari bezala. Tel.: 943 77 08 13.

• Neska bat behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 73 82.

• Emakumea prest pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Tel.: 608 97 49 72 (11:00etatik 13:00etara eta 20:00etatik 22:00etara).

• Ingeles eta frantsesezko itzulpenak egiten ditugu. Merke eta azkar. Tokiko profesionalak. Tel.: 943 77 18 23.

• Neska arduratsuak umeak zainduko lituzke. Deitu goizetan edo arratsaldeko 20:00etatik aurrera 943 71 53 74 telefonora.

18. Eskaerak

• Emakume euskalduna behar da, umeak zaintzeko. Tel.: 943 77 01 31.

• Pertsona bat behar da taberna bateko sukaldean lan egiteko. Tel.: 943 79 61 64.

• Emakume arduratsua behar dugu umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 23 44.

• Enpresa batek mezulariak behar ditu, 1.200 kg. edo gehiagoko furgonetarekin ibiltzeko. Tel.: 943 79 92 77.

• Geriatria edo klinika laguntzaile titulua duten langileak behar dira. Kontuan hartuko da lanean aritu izana. Bidali curriculum Atsedan 23 postakutxara. 20500 Arrasate.

• Gizonen ile apaintzailea behar da. Tel.: 943 79 84 88.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Fandango eta arin-arin ikastaroa helduentzat. Moises Azpiazu dantza taldeak zuzenduta. Larunbat goizean 11:00etatik 12:30ak arte. 2.000 pta. hileko. Tel.: 943 76 15 40.

• EGA agiriaren jabe den irakaslea eskola partikularrak emateko prest. Tel.: 943 79 86 28.

• Margolaritza eskolak ematen ditut, marrazki artistiko eta olio estiloetan. Tel.: 943 79 19 23.

21. Eskaerak

• Hiru neskak ingelesezko eskola partikularrak hartuko genituzke. Tel.: 943 79 09 86 (Naiara) eta 943 79 09 71 (Nerea).

MOTORRA

23. Saldu

• Volkswagen Golf bat salgai. GTI 16v. SS-AD matrikuladuna. Tel.: 943 77 16 46 (20:00etatik aurrera).

• Rieju RS1 Evolution motorra salgai. 6.000 km. Tel.: 943 79 25 73.

• Opel Corsa 1.2 salgai, egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 79 18. (Gorka).

• Citroen Xara 1.600 salgai. 90 cv. Gasolina. Matrikula: SS-AZ. Tel.: 610 64 52 04 (18:00etatik aurrera).

• Ford Escort RS-Turbo, estrarekin, salgai. Matrikula: SS-AG. Tel.: 639 38 87 77

• Renault Super 5 zuria SS-AB salgai. Oso egoera onean eta prezio interesgarrian. Tel.: 943 79 68 75.

• Opel Corsa GSI (VI - K) salgai. Tel.: 609 28 65 82 (20:00etatik aurrera).

DENETARIK

26. Saldu

• Salgai: gitarra elektrikoa (beltza, hiru pastillak), estalki gogorra (berria), anplifikadorea (Roand markakoa, efektu eta guzti, flangerra adibidez), distorsio pedala, metal zone, guagua pedala (Vox markakoa), kableak, gozagailua. 60.000 pta. Helbide elektronikoa: FD1@decgi.e-mail.com

• Bulego altzariak salgai, prezio onean. Tel.: 943 79 84 35 (Luis).

• Idazteko mahai txikia bi aukirekin, bi sofa eta egongelako mahaia salgai. Tel.: 943 79 07 73.

• Bigarren eskuko zeharkaldiko eskiak salgai. Tel.: 943 79 06 33. Iñaki.

27. Erosi

• Egoera onean dagoen ordenagailua interesatuko litzaidake. Hainbat programa instalatuta eta inpresora badauka, hobe. Windows 98 -Excel 97. Tel.: 943 78 35 14.

31. Galdu

• Artzain txakur bat galdu da. Izena: Sohi. Lepoko berdea darama. Ostegunean galdu zen, Sara inguruan. Zerbait dakienak dei egin dezala 943 77 13 66 telefonora.

• Inauterietako asteartean argazki erroilu bat galdu nuen San Andres eta Erdialdearen arteko bidean. Aurkituz gero, deitu 943 71 48 26 telefonora (Montse - Mari).

• Duela hilabete inguru katu siamesa galdu nuen San Josepe inguruetan. Norbaitek aurkitu badu, deitu 943

79 21 52 telefonora, mesedez.

32. Aurkitu

• Uribarri inguruan katu zuria topatu dugu. Jabeak dei egin dezake 943 79 51 21 telefonora.

33. Bestelakoak


• Larunbatean, eta gura barik, nirea ez den jaka bakeroa eraman nuen etxera. Nirea eraman zuenak, mesedez, dei egin diezadala 943 79 59 40 telefonora, eta horrela trukatu egingo ditugu. Elena.

• Bolinete errotako argazki bat lortu nahi nuke, kopia bat ateratzeko. Tel.: 943 72 55 92 / 609 55 08 40.

HARREMANAK

37. Bestelakoak

• Orrialede hauetako irakaskuntza saileko eskaeretan agertzen den "gaztelaniazko eskolak hartuko nituzke" iragarkiarekin deia hartu zuenak, mesedez deitu berriz ere 943 79 79 12 telefonora.



WERU®

Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moksetak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...



L 932ko abenduaren 13koa da argazki hau. Santa Lucia eguna, jostunen eguna, ospatzeokotan bildu zen lagun talde hau. Julio Markaide "Olia"-k bere soinuarekin alaitutako dantzaldia ere izan zuten egun horretan.

Erdiko kalen Juli Uriartek josteko ikastaroak ematen

zitzen eskolan dago aterata argazkia, orain ere josten ikasteko akademia dagoen lekutik hurbil.

Argazkian agertzen direnak goitik hasita ezkerretik eskuinera:

Lehenengo ilaran: Beatriz Garai, Juanito Mancebo "Churrero", Valentina Urionabarrenetxea, ezezaguna.

Bigarren ilaran: Luisa Gantxegi, Julio Markaide (soinujolea), Juli Uriarte (irakaslea) eta Luis Madariaga.

Hirugarren ilaran: Fernanda "Chaco" (amantalduna, andrahonek taberna batean lan egiten zuen), Carmelo Madinabeitia, Alicia Garcia, Valentín Gonzalez, Luisa Etxaurre, Celestino Uriarte, Amparo

Trincado, Faustina Letamendi eta Maria Rubio.

Belauniko: Jesus Trincado, Pablo Ibarra, Isabel Abetxuko, Pedro Gallastegi "Londres", Pilar Uriarte, Felipe Anduaga eta Maria Mondragon.

Argazkia eta berriematea:
 Beatriz Garai,
 Martin Bisiren alarguna.



5 urteko bermearekin

Ordezko pieza 24 ordu

Laguntza errepidean 24 ordu

© 900 30 80 80

Lehenengo gizakia, gero makina

MENDIOLA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
 Erakusketa eta Salmenta: Tel.: 943 79 00 11
 Mekanika eta karrozeria: Tel.: 943 79 75 64

Martxo

Leiar
progresiboak

Betaurrekoak

eta

leiarrak

19.500 pta. tik hasita

Kalitatea saltzen dugu

Erdiko kale 22 - Tel.: 943 79 71 68

Hiper EROSKI - Tel.: 943 79 78 26

ARRASATE-MONDRAGON (Gipuzkoa)

Andra Mari, 8 - Tel.: 94 620 29 86

Grupo San Ignacio, 6 - Tel.: 94 681 84 92

DURANGO (Bizkaia)

Erdiko kale 21 - Tel.: 943 60 31 54

MUTRIKU (Gipuzkoa)



INSTITUTO
OPTICO



**ESKAINITZA
BEREZIAK**

**Sofa
leku**

**HIRU JOKO
LARRUA
OIHALA
3+2**

GRUPO

**Amuebladora
Mondragonesa**

